

1997-2022

ARKUPEAK

25 urte años

Jubilatu en elkartea
Asociación de jubilados

02 Arkupeak-en 25 urteko historia *Historia de los primeros 25 años*



ARKUPEAK-EN SORTZAILEAK eta OMENDUAK



Gobierno Nafarroako
de Navarra Gobernua

Arkueak-en 25 urteko historia

Historia de los primeros 25 años

Fernando Etxeberria Mariezkurrenak (Ezkurra, 1942) Arkueak elkartearen historia idazten ari da hiru ataletan.

Kargu hauek izan ditu: Zuzendaritza Batzordeko presidenteordea, idazkaria, komisio desberdinetan parte hartu du eta prentsaren harremanetarako arduraduna. Beraz, elkartearen historia barrendik oso ongi ezagutzen du.

Hona hemen bigarren atala...

Fernando Etxeberria Mariezkurrena (Ezkurra, 1942) está escribiendo la historia de la asociación Arkueak en tres capítulos.


Ha desempeñado estos cargos en la Junta Directiva: Vicepresidente, secretario, miembro de diversas comisiones, responsable de las relaciones con la prensa. Por ello conoce muy bien la historia desde su interior.

A continuación el segundo capítulo...

ACTA FUNDACIONAL DE ARKUEAK

D. Felipe Gamboa
D. Miguel Eraso
D. Agustín Miguelorenra
Dña. María Uchandorenra
U. Faustino Manteola
D. José Ariztegui
D. Pablo González
Dña. María Jesús Zubalo
Dña. Ana Uchurutegui
Dña. Mercedes Galarragaui

En Santesteban, siendo las 11.30 horas
del día 15 de Septiembre de 1.986, y
con la asistencia de los citados al marr-
gen, se celebra la Asamblea Fundacional
de la Asociación de Jubilados "Arkueak",
tomándose los siguientes acuerdos:



1º. Queda constituido el Club de Jubilados "ARKUEAK" de Santesteban,
que tendrá personalidad jurídica y se regirá por los presentes Estatutos

2º. De acuerdo con dichos Estatutos, se efectúa la elección de los ger-
gos de la Junta Gestora hasta que se inaugure el local, en cuyo momento
se efectuará la elección del Presidente y Vicesecretario.

D. Felipe Gamboa
D. Miguel Eraso
D. Agustín Miguelorenra
Dña. María Uchandorenra
U. Faustino Manteola
D. José Ariztegui
D. Pablo González
Dña. María Jesús Zubalo
Dña. Ana Uchurutegui
Dña. Mercedes Galarragaui

Sin más asuntos que tratar, se levanta la sesión siendo las 12 horas
del día de la fecha.

Signatures of the attendees:
 Felipe Gamboa, Miguel Eraso, Agustín Miguelorenra, María Uchandorenra, Faustino Manteola, José Ariztegui, Pablo González, María Jesús Zubalo, Ana Uchurutegui, Mercedes Galarragaui.
Signatures of the officers:
 Presidente: Faustino Manteola, Vicepresidente: José Ariztegui.

CSV: 47204E23499C8282
Puede verificar su autenticidad introduciendo el CSV en / Benetakoak dela eguztatu dezakezu CSVa hemen sartuta:
<https://deputazio.euskadi.eus/verificarCSV/validarCSV?csv=47204E23499C8282>
Emitió por Gobierno de Navarra / Nafarroako Gobernuak emanua (DIBI: A15007522)
Fecha de emisión / Notz emanua: 2022-09-26 14:39:59

ARKUPEAK-EN SORRERA ETA HEDAPENA

Arkuppeak izenak (arkuazpi, lehorpe, estalpea) babesteko eta eguraldi txarrari aurre egiteko harrera lekua esan nahi du.

Horrelako ideiaren bat izan behar zuten, zaintzarik gabe, 1986an, erretiratuen elkarte bat sortzea erabaki zuten lau gizonek, hirugaren adinekoendako harrera lekua izan zedin.

Historikoki, hirurogeiko hamarkadara arte, gure ingurua nekazaritza-eremuaren gehienbat eta, horregatik, bizitza aktiboaren eta erretiroaren arteko muga ez zen argia: jendeak soroan eta abereekin lanean jarraitzen baitzuen gorputzak iraun arte.

Baina hamarkada horretan industrializazioaren fenomenoa hasi zen, eta askotan, oso sakrifikatua eta arautua zen bizi batetik, bete-beharrik gabeko beste bizi-etapa batera pasatzea suposatu zuen jubilazioak.

Erretiroaren kontzeptuak bazterketaren esanahia du, marginazioarena ezpada, eta hori, hain zuzen, kasu askotan benetako trauma zen.

Egun on batean, lau gizonek erretiroaren kontzeptua jubilazioarenarekin aldatzea erabaki zuten, jubilazio hitzak poza, alaitasuna eta ongizatea esan nahi baitu.

Orduan, lau horiek, Felipe Ganboa, Faustino Manterola, Jose Ariztegi eta Pablo Gonzálezek, Arkuppeak sortzeko abentura hasi zuten. Osasun arazoengatik edo adinagatik jubilatuta zeudenak ziren, baina oraindik zerbait baliagarria egiteko gaitasuna eta indarra ba-zutenak. Gainera, pentsioak behar ekonomikotik libratzen zituen, eta behar-beharrezko hiru osagai bazituzten: askatasuna, denbora eta borondatea.

Haien ustez, jubilatuek eta gizartea ahaztuek antolatu egin behar zuten, giza eskubideak, ekonomikoak, kulturalak eta aisiadlikoak al-

darriatzeko, hainbeste urtetan lanean sufrituz eta askotan gosez aritu ondoren.

Lau lagun horiek beren ideiak martxan jartzea erabaki zuten; lehenik beren herrian, Donezteben, eta ondoren ingurukoetara zabaldu. Ate joka hasi ziren, erakundeekin harremantzen jartzen eta informatzen, lehen urratsak emateko.

Frustrazioak izan zituzten, ezezko asko, axolagabetasun handia, baina baita laguntza sustra eta erakundeen harrera ona ere.

Udalari, kutxei, bankuei, eta baita Administrazioari ere laguntza ekonomikoa eskatzen hasi ziren.

Zituzten ideiak ezagutarazteko, besta bat antolatu zuten 1986ko ekainaren 30ean, Doneztebeko adineko guztiak gonbidatuta. Aurretik, etxez etxe ibili ziren jubilatuak informatzeko. Elkarrizketa horietan azaldu zitzaizkien, kutsu politikorik gabeko, eta denen onerako, elkarrebat sortzeko eta bere funtzionamenduari buruz zituzten asmoak.

Besta hori herriko jaietan egin zen Lorentxo Oyarzabal eta Pilar Garro herriko aitona-amonak, doako bazkari batekin, omentzeko aprobetxatuz. Bazkaria eskolan egin zen, eta 180 lagun elkartu ziren.

Erantzuna oso positiboa izan zen eta ikastetxearen, herriko gazteen, eta jubilatu askoren laguntza izan zuten.

Bazkalondoan borondatezko laguntza ekonomikoa eskatu, eta 69.000 pezeta bildu ziren. Laguntza hori beharrezkoa izan zen lehen urratsak ematen hasteko.

Udalera jo zuten lokal bat eskatzeko Alondigan; gero Udaletxeko arkuen azpian, horregatik Arkuppeak izena; eta, ezezko erantzuna jaso ondoren, Mercaderes kaleko lokal bat erabiltzea erabaki zuten.

1986ko irailaren 15eko eratze-aktak edo elkartea sortzeko aktak honela dio: "Arkuppeak

Jubilatuen Elkartea Sortzeko Batzarra".

Felipe Ganboa, Miguel Eraso, Agustín Miguel-torena, María Ochandoren, Faustino Mante-rola, José Ariztegui, Pablo Gonzalez, María Jesús Zabalo, Ana Uchurrutegui eta Micaela Galarregui elkartu, eta honako erabaki hauek hartu zituzten:

1.- Eraturik edo sorturik geratzen da Donez-tebeko Arkupeak Jubilatuen Elkartea. Nortasun juridikoa izango du eta estatutu hauen arabera arautuko da.

2.- Estatutu hauen arabera, lokala inaugura-tu arteko Gestio Batzordeko karguak hautatu dira, inauguratutakoan hautatuko baitira presi-dentea eta Zuzendaritza Batzordea.

Elkartea, eratuta edo sortuta eta estatutuak onartuta, herri mailan hasi zen funtzionatzen.

ESTATUTUAK

Fundatzaileek aurretik estatutuak egin nahi zituzten eta elkartea legez eratu edo sortu, aurreikusita zeuzkaten jarduerak garatu ahal izateko.

Estatutuak inskribatu ziren Nafarroako Go-bernuko Babesa eta Herritarren Segurtasun Departamentuko zuzendari nagusiak 1986-10-28an hartutako erabakiaren bitarbez.

Nahiz eta egoitza Doneztebeen egon eta lehenengo urtean herri horretan bakarrik funtzi-natu, hurrengo urtean beste herri batzuek elkartu ziren eta eskualdeko elkarte bihurtu zen.

Elkartearren hamaika helburu aipatzen dira 4.artikuluan, eta Arkupeak-en web orrian kon-tsulta daitezke. Horietan, gizartea, ekonomia, lagunza, kultura eta aisia edo entretenimen-dura bideratutako gaiak nabarmentzen dira.

Garrantzi handikoa izan zen elkarteko fun-tzionamenduaren xehetasunak erabakitzea.

Hirugarren atalean organoak zehazten dira: Presidentea, Zuzendaritza Batzordea, eta Bazkideen Batzar Orokorra.

15. artikuluak honela dio:

"Zuzendaritza Batzordea presidenteak, presi-denteordeak, idazkariak, idazkario-deak, di-ruzainak, Doneztebeko sei bokalek eta elkar-tutako herri bakoitzeko bokal banak osatuko dute.

Bazkideek hautatuko dute presidente, boz-keta bidez. Presidenteak bi urterako hautatu-ko du Zuzendaritza Batzordea. Bi urte horien ondoren, berriro egingo da hautaketa. Biga-rren hautaketak bi urterako besterik ez du ba-lioko, eta epe hori bukatzean batzarretik atera beharko dute".

Nolanahi ere, erabaki horri ez zitzaion kasu handirik egin, kargu garrantzitsuenek, den-bora zehaztu gabe, besteen alde lanean ja-rrai zezaten adostasuna baitzegoen. Horrela, presidente 25 urtez egon zen karguan, di-ruzaina 17 urtez, lehen idazkaria 1995.urtera arte, beste bat 2000.urtera arte; eta azkena, 2012.urtera arte.

Baina estatutuen 14. artikuluan, berriz, ai-patzen da Zuzendaritza Batzordeko kideak ezohiko Batzar Nagusiak hautatuko dituela.

Badirudi kontraesan bat badagoela, baina honela ulertu daiteke: presidenteak proposa-tuko ditu Zuzendaritza Batzordeko kideak eta Batzar Nagusiak berretsi edo onartu.

Sortzaileen lehen urratsen ondoren eta bazki-deak erakartzeko lan sakona eginda, hurren-go urtean inguruko hainbat herri hasi ziren parte hartzen; horregatik, estatutuetako hain-bat artikulu aldatzea erabaki behar izan zen, zehazki, eskualdekoia izatetik probintziakoa izatera.

Aipatutako aldaketak inskribatu ziren Nafa-roako Gobernuko Babesa eta Herritarren Segurtasun Departamentuko zuzendari na-gusiak 1987-07-22an hartutako erabakiaren bitarbez.

Bestalde, bazkide-kopurua asko handitzen ari zenez, ia ezinezko iruditu zitzaien guztiak batzarrera ager zitezkeenik. Horregatik, 2002. urtean, 12.artikulua aldatzea erabaki zuten, eta, "Batzar Orokorraren" ordez, «Delegatuen Batzarra» idaztea.

3. artikulua ere aldatu zen: Merkadereseko egoitza sozialaren ordez Santa Luzia kaleko 5 zenbakia, 2. solairua jarriz.

Batzar Nagusia herrietako delegatuek osatuko dute. Delegatu horiek ordezkatzenten zuten herriko bazkideen artean hautatuak izaten ziren. Herriko biztanle-kopuruaren eta sakabanaketaren arabera, delegatu bat edo gehiago zegoen herri bakoitzean.

Aipatutako aldaketak inskribatu ziren Nafarroako Gobernuko Barne Departamentuko zuzendari nagusiak 2002-05-30ean hartutako erabakiaren bitartez.


Presidenteak zioen delegatua beharrezkoa zela Arkupeak-eko egitura funtzionalean.

Egoitzaren eta herrien arteko lotura da. Delegatuak herriko bazkideen bajak eta altak egin ditu, kuotak kobrau, elkartearren jarduerrei buruzko informazioa banatu, bidaietarako izen-emateak egin, kuotak kobrau, gaixo dauden bazkideak ikustera joan eta elkartearren laguntzak bideratu.

2011. urtean presidentea aldatu, eta hurrengo urtean delegatuen batzarrak ezohiko bilera egin zuen maiatzaren 18an, eta hainbat artikulu aldatu zituen. Garrantzitsuena 15.artikuluaren aldaketa izan zen, zeinetan ezarri zen Zuzendaritza Batzordea presidenteak, presidenteordeak, idazkariak, idazkarioordeak, diruzainak eta lau bokalek osatuko zutela.

"Presidentea lau urterako hautatuko du Delegatuen Batzarrak bozketa bidez eta, gehienez ere, beste lau urterako bakarrik hautatu ahal izango da; beraz, presidente kargua zortzi urteko muga izango du".

"Era berean, Delegatuen Batzarrak Zuzendaritza Batzordea lau urterako hautatuko du.



Epe hori bukatzean, hautaketa berria egingo da, eta bokalak berriz hautatu ahal izango dira, eta eperik gabe jarraitu”.

Presidentearen, Zuzendaritza Batzordeko kideen eta delegatuen hautaketak egiteko, hauteskundeen deialdiak egiten dira hautagaiak aurkeztu daitezten.

Aipatutako aldaketak inskribatu ziren Nafarroako Gobernuko Lehendakaritza eta Justizia Departamentuko zuzendari nagusiak 2013-01-10ean hartutako erabakiaren bitartez.

ARKUPEAK-EN HEDAPENA

1989. urtean, Arkupeak-ek lehen aldizkaria argitaratu zuen. Aldizkari horrek, jardueren garapenaren berri eman zuen, sortzetik hasita.

Aldizkarian irakur daitekeenez, Arkupeak 1986.urtean Doneztebeko herrian aritu zen. 1987an, herriz herri bilerak egiten eta delegatuak izendatzen ibili ondoren, eskualdekoia izatera pasa zen. Urte horretan Sunbilla, Legasa, Narbarte, Oierregi, Elgorriaga, Ituren-Aurtiz, Zubietar, Eratsun, Saldias, Labaien, Urroz, Oiz, Donamaria, Gaztelu, Ezkurra eta Oronoz sartu ziren. Horregatik, estatutuak aldatu ziren, eta Arkupeak probintzia-mailakoa izatera pasatu zen.

1988.urtean Bera, Arantza, Igantzi, Etxalar eta Elizondo elkartu zitzazkion, eta 1989.urtean Baztango herriak.

Leitza, Areso, Goizueta eta Arano ere gehitu behar zaizkio. Geroago, Irunen eta Iparraldean bizi, baina eskualdekoak izanik, hainbatetek eskatu zuten Arkupeak-eko bazkide izatea. Onartu egin ziren.

Azkenean Arkupeak eremu honetara zabaldu zen: Arano, Goizueta, Leitza, Malerreka, Bortziriak, Bertizarana, Baztan, Urdax-Urdazubi eta Zugarramurdi. Denetara 40 herri eta beste zenbait Euskal Herriko herritara ere.

Laburbilduz, ziurta liteke bazkide asko gerrian ibiliak zirela; beste asko Euskal Herri, Frantzia, Kanada eta abarreko mendietan lan egindakoak. Asko, baita ere, artzain edo labide hobearren bila joanda, Ameriketan ibiltakoak ziren. Beste batzuk langileak, autono-moak eta hainbat lantegi desberdinetan lan egindako karreradunak. Emakume gehienek, etxeko lanez arduratzeaz gain, nekazaritza eta abeltzaintza lanetan laguntzen zuten.

Elkartearren jarduerak hiru arlotan oinarritu zituzten: kultura, dibertimendua eta laguntza sozialean.

Begibistakoa da jubilatu askok ez zutela goi-mailako formakuntza jasotzeko aukerarik izan. Familia ugarikoak ziren gehienak, baserrietan bizi zirenak etorkizun gutxirekin, eta horregatik txikitatik hasi behar zuten lanean familia osoak jan zezan.

Orain, Arkupeak-ek oinarrizko kultur prestakuntza eskuratzeko aukera errazten zuen: bidaia ugari antolatuz, beste giro, beste herri, eta beste herrialde batzuk ezagutzeko aukera emanez. Aldi berean, Arkupeak bere bazkideak animatzen aritu zen, horiek gure kultura, hizkuntza, ohiturak eta folklorea balioan haritzaten.

Dibertsioa ere oso garrantzitsua da adinekoetan. Etxetik atera behar da, nahiz eta askok, zahartzat joz beren burua, bertan geratu nahiago badute ere. Batzuetan ez dago ez ilusiorik ez erlazionatzeko gogorik. Dibertimendua gazteen gauza dela uste dute. Arkupeak saiatzen da bazkide guztiak habietatik atera eta, ziurrenik inoiz bisitatzeko asmorik izan ez zuten tokietara, joan daitezen, beste herrietako jubilatuekin harremana izan, ondo jan eta dantza egin, mahai-jokoetan parte hartu, eta kirola eta gimnasia egin ditzaten.

Zalantzak gabe, Arkupeak elkartea babes-ten duen arlo garrantzitsuena gizarte-lagun-tza da: bazkideei jubilazio gaietan laguntzea, osasun-zaintzan, bakardadean, egoera ekonomikoan lagun egitea erakundeetan lagun-tza bilatuz eta, beharrezkoa bada, egoitzetan eta eguneko zentroetan plazak bilatuz.

Elkartearen aldizkari guztietan jasotzen dira egiten diren jarduerak: aisiadlikoak, kultura-koak, erlijiookoak, mendikoak, egun batzuetako bidaiaik, egun bateko bidaiaik, eta ospakizunak. Kultura eta dibertimenduen artean hauek aipatzen ahal dira: herriko eta eskualdeko mus txapelketak, gimnasia ikastaroak eta bazkideen eguna. Baita ere Xorroxin Irratian parte hartzea, aldizkaria egitea, adinekoei buruzko hitzaldiak, eta bazkideek egindako lanen erakusketa.

Erlilio-jardueren esparruan, leku hauetarako bidaiaik nabarmendu behar dira: Xabier, Lourdes, Arrate, Aralar, Lezo, La Oliva monasterioa eta Urkiola. Aipamen berezia merezzi du abuztuaren 31n, Ama Birjinaren Bederatzurrenaren lehen egunean, Arantzazura egiten ziren bidaiaik, ia urte guztietan laurehun baino gehiago izaten ziren. Probintziatik kanpo dago santutegi hori. Horrenbeste jende joatearen arrazoia, batzuen iritziz, hauxe da: fraide frantziskotarrak urtero joaten zirela Malekrekara, Baztanera eta Bortzirietako herrietara misio herrikoia ematera, Gabonetako ospakizunetan, Aste Santuan eta herriko bestetan. Horri esker, asko joaten ziren Arantzazura, eta aitorzeko eta jauna hartzeko aprobetxatzen zuten.

Mendi irteera batzuk ere antolatu ziren: Arantza-Elgorriaga, Bidasoako trenbide zaharra, Urbasa, Aizkolegi, Larun...

Asko errepikatu ziren egun bateko eta egun batzuetako bidaiaik: Bilbo, Iruña, Erribera, Pirinioak, Fuengirola, San Anton, Jaizkibel, Galizia, Asturias, Benidorm (urtean bi aldiz), Katalunia, Andaluzia, Madril, Extremadura, Lizarra, Lodosa, Salamanca, Soria, Segovia, Zamora, Burgos, Konkistatzaileen Ibilbidea, L'Estartit, Girona, Tarragona, Gaztela, Fitero, Errioxa, Gernika, Andorra, Zarautz, Getaria, Orio, Donibane Lohitzune, eta Biarritz, Bartzelonako erakustazoka, Salou, Mallorca, Larun, Zaragoza, Torrelavega (ganadu feria) Levanteko kosta, Bilboko erakustazoka, Logroño, Baiona eta Landak, Urdax eta Zugarramurdi (leizeak ikusi), Santo Domingo eta Haro, Paris, Bruselas, Amsterdam, Tenerife, Lanzarote, Torremolinos, Eugi, Gares. Lour-

des eta Frantziako Tourra, Gatika eta ingurua, La Mancha-ko ibilbidea, Kixoteren ibilbidea, Bertiz eta Beraiz.

Aurrerago bidaia berezi batzuk aipatutako ditugu: America, Europa eta Afrikako bidaiaik. Argentinako euskal emigranteen bisita azpimarratuko dugu. Zalantzaris gabe, Arkupeak harro egon daiteke gure emigranteei jaioterria itzultzeko aukera eman zielako, eta hamabost egunez, familiakoek ez ezik, agintariek eta erakundeetako ordezkariek ere eman zieten tratuaz gozatzeko aukera izan zutelako.

Bidaietako parte-hartzea arrakastatsu izan zen 2004 arte gutxi gora-behera. Gero jaisten hasi zen, baina hala ere oraindik garrantzitsua zen.

Adibide gisa, datu hauek aipatzen ahal dira: 1994an 7.261 inskripzio izan ziren; 1997an 7.173 inskripzio; 2000an 7.606 inskripzio; 2004an 5.659 inskripzio; 2007an 4.618 inskripzio. Bidaia horietan sartuak daude anaitasun jaiak, normalean ekainean egiten zirenak, eta urte bukaerako jaiak, normalean azaroan edo abenduan egiten zirenak.

Urtero egin dira jarduera hauek:

- Herriko jaietan mus txapelketak.
- Hasieran 90 eta 100 urtetik gorakoei omenaldiak. Gero 85 urtetik gorakoei eta ezkontzako urrezko ezteiek betetzen zituztenei, baita batzuetan diamentezko ezteiak era ospatzen zituztenei.
- Herrien arteko anaitasun jaiak, ekainean. Egun horietan egiten ziren, normalean, omentaldiak.
- Urte bukaerako jaiak, azaroan edo abenduan.

Anaitasun eta urte bukaerako jaietan 800dik 1.000 bazkide arte hartzen zuten parte besta bakoitzean.

Hainbat urtetan, kultur aste eta hamabostaldiak egin ziren. 1988ko abenduaren 2tik 7ra

lehenengo kultur astea ospatu zen, eta orduko programan azaltzen dira mus txapelketa, adinekoen kirolari buruzko hitzaldiak eta filminak, zinema-aretoan pelikula, folklore-ekitaldia txistulari, bertsolari eta joteroekin, artisau-lanen saioa eta aurkezpena, ajoarriero lehiaketa, txarangaren eta Gure Txokoa-ko dantzarien emanaldia. Gastuak 709.200 pezeta izan ziren eta bazkariko sarrerak 360.000 pezeta.

1989ko urriaren 9tik 24ra kultur hamabostaldia ospatu zen programa zabalarekin: Lizarra eta Urbasa ingurura kultur bidaia. Beran, kirol jaialdia pilotu partidekin eta dantzaldiarekin. Mus txapelketa Arizkunen, hirugarren adinari buruzko hitzaldia, eskualdeko dantzak, Aiako Harria inguruan ibilaldia, probintzia mailako mus txapelketa, gizentasunari buruzko hitzaldia, tortilla lehiaketa eta Latasari omenaldia.

1991ko maiatzaren 1etik 6ra ospatu zen kultur asteari izen hauxe jarri zitzaison: "Kultur Astea eta Baztan-Malerreka eta Bidasoako laurogeita hamar urtetik gorakoei omenaldia". Beran, Elizondon eta Donezteben ekitaldia izan ziren. Urdazubiko eta Zugarramurdiko leizeetara bisita egin zen, eta haiei buruzko hitzaldia, Elgorriagan eskualdeko mus txapelketa eta pilotu partidak Beran. Azken egunean, mundu mailako jubilatuen eta 90 urtetik gorakoen Omenaldi Eguna tokatu zirenez, meza Donezteben eman zen bertsolarien emanaldiarekin; ondoren, Alai taldeko akordeoi joleen kontzertua eta bazkideen artisau erakusketa izan ziren. Eta, eguna bukatzeko, Bordatxon dantzaldia.

Badirudi, ondorengo urteetan kultur asteak egin zirela, programak agertzen baitira, baina ez dago xehetasunik. Baita ere ikusten da Zuzendaritza Batzordeak ahalegin handia egin zuela helburu hauetan:

- Azpilkuetako etxea erosi, San Frantzisko Xabierren ama bertan bizi izana baitzen, harren familiari eskainitako museoa han kokatzea.
- Tutoretzapeko pisuak edo pisu babestuak ireki.

- Etxebitzitza bat erosi Donezteben, egoera larrian zeudenak hartzeko.
- Gizarte Segurantzaren bulego bat jarri.
- Administrazioarekin gestioak egin, jubilatuen egoitza eta, ondoren, eguneko zentroa lortzeko.
- Doneztebeko Udalaren laguntza lortu, egoera txarrean zegoen antzinako Asiloa edo Erruki Etxea, patronatu baten esku zegoena, Udalaren esku utzi, eta berritua izan zedin gizarte ekintzitarako.
- Doneztebeko Udalaren laguntza lortu, Donezteben igerileku estalia egin zezaten.

ARKUPEAK ELKARTEAREN LEHENENGO EGOITZA EDO BULEGOA

Hasieran behin-behinean Zuzendaritza Batzordea Felipe Ganboaren etxearen elkartzen zen. Antzinako Asiloko beheko solairua era-biltzen saiatu ziren, baina oso egoera txarrrean zegoenez eta konponketarako diru asko behar zenez (eta ez zeukaten), Mercaderes kaleko 19 zenbakiko beheko solairuan kokatu ziren.

DONEZTEBEKO ANTZINAKO ASILOA EDO ERRUKI-ETXEA

1931.urteko dokumentu batek dioenez, Gobernazio Ministerioak Nafarroako Benefizientzia Batzarrera jo zuen, eta jakinarazi zion, hainbat pertsonen ekimenez, besteak beste, parrokiako apaizarena, Donezteben Asilo Etxe bat jarri zela joan den mendearen bukaeran, Asilo edo Erruki-Etxe Zaharra izeneko, behartsuak bildu eta zaintzera bideratua.

Ordutik, alkatearekin batera elizarena zen

agintaritza hora, eta patronatuko eta administrazioko lanak betetzen zitzuten, gastuak ordaindiz. Gastu horiek batzuetan, harpide-tza bidez, edo ongi-egileen diru-laguntzarekin ordaintzen dira. Ongi-egile horien artean daude Juan Ignacio Osacar eta Jose Antonio Azcarreta. Azken horrek, testamentuan, bere ondasunen zati bat aipatutako erakundea mantentzeko bideratu zuen.

Zenbait gogoeta egin ondoren, Ministerioak benefizientzia partikularreko Zentro gisa sailkatu zuen etxea, Asilo-Etxe edo Erruki-Etxe Zaharra izenarekin. Parrokiako apaiza eta alkatea legezko ordezkariak izango ziren. Horiek aurrekontuak egiteko eta aldizka Babes-letzari kontuak emateko betebeharra zuten. Ondasunak erakunde horren izenean jartzeko betebeharra ere bazuten.

1989ko ekainaren 5ean, Arkupeak elkarteko presidenteak Doneztebeko alkatearengana jo zuen, adinekoen egoitza bertan kokatzeko, Asilo zaharra erosteko aukera azter zezala eskatuz. Horretarako, ideia babestuz egin-dako Malerreka udal guztien aktak erantsi zituen eskaeran.

Denboraren poderioz, zentroa larriki hondatzen ari zenez, Arkupeak-ek saiatu nahi zuen zentroa berritu eta gizarte-ekintzatarako era-biltzen.



Asilo edo Erruki Etxe zaharra, Doneztebeko Rosa Seminario karrikan



Arkupeak-en 25 urteko historia

Historia de los primeros 25 años

Ez da beste daturik aurkitu 1992.urte arte. Udalak, urte horretako urriaren 28an egin-dako bilkuran, Udaletxe zaharraren 2.solairua dohainik uzteko asmoa azaldu zuen, eta baldintzetako batek honela dio hitzez hitz: «Arkupeak elkartea aukera librea utziko dio Doneztebeko Udalari, Nafarroako Gobernuarekin batera, Azkarreta Fundazioaren Asilo zaharreko etorkizuna gestionatu dezan. Horren helburua, aldez aurreko tramiteak egin ondoren, aipatutako eraikinaren jabe Udalak izatea da.

Arkupeak-ek baldintza hori onartu zuen, baina etorkizunean eraikin horren zati bat gizarte-ekintzatarako erabili beharko litzatekeela nabarmenduz.

EGOITZA EDO BULEGO BERRIA

Mercaderes kalean denboraldi batez egon ondoren, berriro Udalera jo zuten, Santa Lucia kaleko 5 zenbakiko 2.solairuan Arkupeake-en egoitza jartzeko. 1992ko urriaren 28an Arkupeak-i dohainik utzi ziola lokal hori goratu zion Udalari.

1995eko maiatzaren 25eko dokumentu bat badago, “Dohainik Erabiltzeko Lagapena izenekoa, Doneztebeko Udalak emana Arkupeak jubilatuen elkarteari”, eta Miguel San Miguel Azpiroz alkateak sinatura. Izen ere, 1992ko urriaren 28an egindako osoko bilkuran erabaki zen beharrezko gestioak alkateak egin ahalko zituela Arkupeak elkarteari lokal bat uzteko.

Dokumentu horretan esaten denez, Santa Luzia kaleko etxearen 1. solairua, lehen, udaletxe gisa erabiltzen zen. Gaur egun, beheko solairuan Doneztebeko jubilatuentzat zentro sozial bat prestatzen ari dira, eta 1. solairuan INEMen bulegoa, haurrentzako eskola, eta Erreka kirol elkartea daude. Bigarren solairua, lehen, etxebizitza eta biltegi gisa erabiltzen zen.

Hitzarmenak lehenengo baldintzan esaten du Udalak DOHAINIK UZTEN DIOLA elkarteari bigarren solairua erabiltzea, baldintza hauekin:

- 1.- Nafarroako Toki Administrazioei buruzko

Foru Legearen 128.artikuluan oro har ezarritakoak.

2.- Arkupeak elkartea “bide librea” utziko dio Doneztebeko Udalari, Azkarreta fundazioaren Asilo zaharraren etorkizuna Nafarroako Gobernuarekin gestionatu dezan eta, dagozkion tramiteak egin ondoren, etxe hori udal-ondasunen parte izan dadin.

3.- Arkupeak-ek lokala 20 urtez erabiltzeko eskubidea izango du. Edozein arrazoirengatik elkartea desegingo balitz, Udalera itzuliko litzateke ondasun guztiekin. Lehentasuna erabilera sozialak izango du.

4.- Elkartearren kontura izango dira moldatzeko gastu guztiak.

5.- Mantentze-gastuak, zergak, tasak eta abar elkartearren kontura izango dira.

6. Eraikinaren gastu komunak erabiltzaileen artean banatuko dira (Gizarte Segurantza, Doneztebeko jubilatuen elkartea, Arkupeak).

Egoitza berria moldatzeko gastuak 22.734.812 pezeta izan ziren, eta Nafarroako Gobernuak eta Arkupeak-ek % 50na ordaindu zituzten. (7. Aldizkariaren 29 eta 30. orriak, 1994ko ekaina).

Lokalak zati hauek ditu: sartu eta esquinera presidentearen bulegoa, idazkaritza eta artxiboa. Sarrerako atearen parean komunak. Sartu eta ezkerrera bilera-aretoa.

1993ko ekainaren 30ean, Arkupeak elkartea egoitzaren inaugurazio ofiziala goi mailan ospatu nahi izan zuen. Aldi berean ospatu ziren 85 urtetik gorako bazkideen omenaldiak, baita urrezko ezteiak ere, eta elkartearren zazpi-garren urteurrena.

Jaia Juan Cruz Alli, Nafarroako presidentea, eta Cirarda artzapezpikua bertan zirela hasi zen. Azken honek instalazioak bedeinkatu zituen bazkide askoren aurrean eta, prentsaren arabera, ia mila lagun bertaratu ziren zenbait kide omentzeko asmoz.

Hamabietan, elizan elkartu ziren hildako bazkideen aldeko meza emateko. Azpillaga eta Garmendia bertsolariek bertsotz batzuk eskaini zizkieten omenduei. Agintarieki opariak eta oroigarriak banatu zizkieten. Juan Cruz Allik jakinarazi zuen tutoretzapeko pisuak Donez-

teben egiteko aztertzen ari zirela. Proiektua eta aurrekontua egin ondoren, dagozkion erabakiak hartuko zirela. Felipe Ganboa adierazi zuen presidente izatea utziko zuela tutoretzapeko etxebizitza horiek martxan jarrí ondoren, eta azkenean egoitza egoki bat inauguraratu zela 22 milioiko gastuarekin. Baita ere esan zuen: "Arkupeak-ek eskean ibiliz, eta zazpi urtez Zubipean biziz, zerbaitek eskuratut ahal izan du".

Bazkaria eskualdeko eskolako frontoian izan zen. Arratsaldean, Garmendia eta Azpillaga bertsolariek eta Estitxu Arocena eta Amaia Tellechea bertsolari gazteek egin zuten saioa. Herri kirolak ere izan ziren Mindegia, Larretxeña eta Iñaki Perurenaren erakustaldiarekin. Eguna bukatzeko, dantza saioa.

LARRIALDI-EGOEREI ERANTZUTEKO PISUA

1995eko urtarrilaren 2an, Diario de Navarra egunkariaren arabera, Ricardo de León y Egüés-ek, Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizateko kontseilaria, 6.750.000 pezetan laguntza eman zion Arkupeak-i, etxebizitza komunitario bat erosteko, familiako edo norberaren inguruko larrialdi-egoerei erantzun ahal izateko. Etxebizitza eta altzarien kostua 13.500.000 pezetakoa izan zen.

2001. urtera arte ez dago haren funtzionamenduari buruzko informazioirik. Urte horretako uztailaren 31ko Zuzendaritza Batzordearen aktan, Felipe Ganboa presidenteari baimena eman zaio, Arkupeak-en etxebizitza hori saltzeko. Kokapena: Parroquia kaleko 5-7, 2.ean. Gero aipatuko da.

TUTORETZAPEKO ETXEBIZITZAK EDO PISU BABESTUAK

Arkupeak-ek, bere jardueraren hasieratik, ahalegin berezia egin zuen arren, Malerreka hirugarren adinekoentzat egoitza lor zezan Donezteben, hori gabeko inguru bakarra baitzen, oso gogo onez onartu zuen alkateak bidali zien albistea: Malerreka Mankomuni-

tatearen helburuetako bat, egungo legegintzaldian, inguruko hirugarren adinekoetarren bide bat ematea zela, ingururako egoitza edo tutoretzapeko etxebizitzan bidez. Arkupeak-ek helburu horiek bat egiten zuela-eta, negoziazioak hasi ziren Nafarroako Gobernuarekin. Gobernu horrek begi onez ikusten zuen Tutoretzapeko Etxebizitzak eraikitzeko proiektua, Udalak partzelaren erabilera utzi, eta horren truke oinezkoentzat zubi bat eraiki zen, errepidetik etxebizitza horietara joan ahal izateko.

Obra Construcciones Fausto Ostolazari adjudikatu zitzzion 1995eko urtarrilean, eta lau hilabete eman zitzazkion obra egiteko. Zenbatekoa: 115.718.731 pezeta izan zen. Prezio horretan sartua dago egurrezko zubiaren kostua Miguel San Miguel Mankomunitate-



Arkupeak-en 25 urteko historia

Historia de los primeros 25 años

ko presidenteak eta obren adjudikaziodunak 1995eko urtarrilaren 17an sinatutako hitzarmenaren arabera.

Binakako logelako 21 etxebizitza izango zituen, eta beheko solairuan zerbitzu komunak jarri behar ziren, hala nola komunitatearen jantokia, egongela, zerbitzuak, garbiteria eta sukaldea.

Aztertzeko zain geratzen ziren funtzionamendua, antolaketa, eta etxebizitzen alokairua. Mankomunitatea izango zen etxebizitzen titularra.

Azkenik, alkateak eskerrak eman zizkion Arkupeak-i, eskualde osoan gizartearen eta, zehazki, hirugarren adinekoen onerako egiten ari zen lanagatik.

1995eko otsailaren 14an Mankomunitatea elkartu, eta erabaki zuen patronatu bat sortzea etxebizitzak martxan jartzea koordinatzeko. Patronatuaren osaketan Arkupeak, Osasun Zentroak eta inguruko udaletako ordezkariek egongo ziren.

Patronatuan udal hauek hartuko zuten parte: Beintza-Labaien, Donamaría, Doneztebe, Elgorriaga, Eratsun, Ezkurra, Ituren, Oiz, Saldías, Urroz eta Zubietza. Gaineratu behar dira Legasa eta Narbarte kontzejuak. Ez zuten parte hartuko Bertizarana eta Sunbilako udalek nahiz eta Malerreka Mankomunitatean sartuak izan, etxe babestuen finantzazioan ez baitzuten lagundu.

Jakinarazi zen Nafarroako Gobernuko Gizarte Ongizateko Departamentuak 13 milioi pezeta eman zituela etxebizitzen projektua idazteko.

Gainera Nafarroako Gobernuak pisu babes-tuen kostuaren ehuneko 22ko diru kaguntza eman zuen gutxi gora-behera.

1995eko apirilaren 30ean, tutoretzapeko etxebizitzetara joateko egurrezko zubia inauguratu zen. Gero eraikinaren maketa ikustera joan ziren, eta baita ere obrak bukatuta nola geratuko ziren ikustera.

Aipatutako zubiak 29,50 metroko luzera du,

oinezkoentzako da, Galbaraialde ibaia gurutzaten du, eta pisu babestuak eta bere ingurua, Elzagibela izenekoa, herrigunearekin komunikatzen du.

Egun horretan bertan, Nafarroako Gobernuko kontseilariaren eta Udalaren arteko hitzarmena sinatu zen. Horren arabera, Asiloaren eraikin zaharra Udalari utzi zitzaion berritu, eta zati bat ekintza sozialtarako erabil zezan.

1996ko ekainaren 28an tutoretzapeko etxebizitzak inauguratu ziren goizeko hamaiketan. Cirarda artzapezpikua eta Nafarroako Gobernuko agintariak espero ziren, baina nahiago izan zuten Leirera joan, Pablo Antoñanari Vianako Printzearen saria emateko ekitaldia baitzen.

Juan Apezetxea bikario nagusiak egin zuen bedeinkazioa. Jarraian, alkateak lehen giltzak eman zizkien Félix Romeo eta Dolores Belarra senar-emazteei.

Arkupeak-en eta Mankomunitatearen asmo iraunkorra izan zen. Hemendik aurrera, jubilatu talde batek bere etxea edo txokoa izan zezakeen, beharrezko intimitate eta independentziarekin. Gainera, langile kualifikatuen laguntzarekin eta etxetik atera gabe.

1998. urtean, Gizarte-Ongizate Departamentuak eraikinaren erabilera aldatzeko proposamena egin zuen. Solairu bakarra eskaintzen zuen apartamentu gisa erabiltzeko. Aldi berean, 15 pertsonentzako eguneko zentroa jangelarekin jarriko litzatekeela, eta hirugarren solairua Arkupeak-ek erabili ahalko zuela.

Ideia horrek ez zuen arrakastarik izan, Mankomunitatea aurka agertu baitzen, jubilatuen eskaria handia zela argumentatuz, haien etxeetara iristeko eta egoera arazoak zitzelako.

Denbora batez etxebizitzak jubilatuek bakanrik erabili zituzten, baina krisi ekonomikoarekin laguntza sozialaren beharra zuten beste pertsona batzuk ere onartu ziren.

ADINEKOEN EGOITZA EDO EGUNEKO ZENTROA



Doneztebeko Udaletxe zaharra, gaur egungo bulegoak

Arkupeak-en hasieratik, kezkarik handiena eta buru-belarri borrokatu zutena Doneztenben jubilatuen egoitza bat sortzea izan zen, batez ere Malerreka adinekoentzat.

Elkartea funtzionatzen hasi eta bi urteratik, zehazki 1989ko otsailaren 24an, Felipe Ganoira presidenteak herriko alkatearengana joan zen eta esan: "Malerrekako 3.adinekoentzat egoitza sortzea lehenbailehen eta epe laburrean bete beharreko premia eta zerbitzua da, eskualdeko biztanleen % 28 talde horren barruan baitago".

"Doneztebe, inguruaren erdigunea izanik eta bertako Udalarena inguruko garrantzitsuena, etorkizunean adinekoentzat egoitza sortze aldera, Nafarroako Gobernuari zuzendutako eskaerak udaleen abala behar du, lehendabizi Doneztebeko Udalarena, eta gero Malerreka gainerako udalena. Hori dela eta, Doneztebeko Udal honi eskatzen zaio proiektu horren alde egitea, eta dagokion eskaera Nafarroako Gobernuari bidaltzea".

Idatzariak erantzun zuen 1989ko martxoaren 2an egindako osoko bilkuran, aho batez,

hauxe erabaki zela: "Udal Malerreka inguruko adinekoentzat egoitza sortzearen alde dagoela adieraztea".

Gutun berdina bidali zitzaien eskualdeko udal guztiei: Elgorriaga, Ituren, Zubietza, Eratsun, Ezkurra, Saldias, Labaien, Urroz, Oiz, Donamaria, Sunbilla eta Bertizarana. Guztiek adierazi zuten Malerreka inguruko adinekoentzako egoitza sortzearen aldeko jarrera.

Arkupeak-ek gelditu gabe jarraitu zuen gaia-rekin, eta bilera bat antolatu zuen Doneztebeko Udaletxean, 1989ko apirilaren 6an, Nafarroako Gobernuko ordezkariek, inguruko alkateek eta elkartekoek berak parte hartuz.

Bileraren helburua inguruko laguntza-arazoa osotasunean aztertzea izan zen eta, egoera orokorraren barruan, inguruan zaharren egoitza eskatzea.

Gobernuaren ordezkariek, Lerga jaunak, honako irtenbide hauek aipatu zituen:

- Etxez etxeko laguntza ez zuten herrietara zabaltzea, eta beharra zuten pertsonei laguntza ematea.
- Eguneko Etxea egitea beren etxeak utzi nahi ez, baina janaria prestatzeko moduan ez zeudenentzat, edo bakardade-arazoak zituztenentzat.
- Zaharren egoitzari dagokionez, Berakoa handitu egingo da, Arantza, Igantzi eta Etxalarko herriak atxiki baitzaizkio.



Pantxoenea, Doneztebeko Aranzoko alderdiko bidean

Arkupeak-en 25 urteko historia

Historia de los primeros 25 años

Lesakan egoitza berri bat sortzeko eskaera dago, eta beste bat Malerrekan. Aztertu egingo dira kokapena erabakitzeko, baina Lergaren ustez ez dira inoiz bi onartuko.

Arkupeak-en iritzia argia izan zen: Nafarroako Gobernuak egoitza bat besterik onartzen ez badu, begi-bistakoa da Berakoa haziko dela, inguruko jubilatuek erabil dezaketena baita; eta bestea Malerrekan egon beharko litzatekeela, Donezteben hain zuen ere. Horrela Elizondokoak Bartzango jendea hartuko luke, Berakoak Bortzirietakoa, eta Doneztebekoak Malerrekkakoa. Ez litzateke bidezkoa, ezta zuzena ere, Bortzirietan bi egoitza izatea eta Malerrekan bat ere ez.

1991ko otsailaren 14an, Lehen Arreta Taldeko arduradunak eta eskualdeko gizarte-laguntzaileak Elizondon elkartu ziren elbarrientzat irtenbide bat bilatzeko asmoarekin eta, hala ez izanik, bazterkeria- edo abandonu-egoeran bizi zirenentzat.

Gaiari buruzko eztabaidea luzearen ondoren, elkartutakoek honako hau adostu zuten:

1.- Hirugarren adinekoen arazoetarako irtenbiderik onena da babes fisiko eta estimulu psikiko egokia emango dien familia-nukleoan egotea.

2.- Hori bideragarria ez denean, edo adinekoak zaintzeko beharrek, argi eta garbi, familiaren aukerak gainditzen dituztenean, orduan da pentsatzen hasteko garaia, behar dituzten material- eta giza-baliabideak dituzten era-kundeetara eramateko.

3.- Beharrezko da irtenbide bat bilatzea ezinduentzat eta, berez baliatu arren, bazterkeria edo abandonu-egoeran bizi direnentzat.

4.- Ezintasun iraunkorrean dauden adinekoentzat, Bidasoako eskualdean egoitza izatea ezinbestekoa da.

5.- Aldi berean, berez baliatzen diren adinekoen premiei irtenbidea ematea beharrezkoa da.

6.- Adineko askok bizi-kalitatea hobetu dezan, konponbideetako bat etxebizitza babes-tuak eraikitzea da, horrela beti bizi izan diren ingurunetik aldendu beharrik ez izateko.

7.- Ezinduentzako zentroa Donezteben koka-tu beharko litzateke, eskualdeko gune geo-grafiko naturala delako, eta horretarako toki egokia baduelako.

Ikusirkik udalen, eskualdeko gizarte-langileen eta, jakina, bazkide guztien babesia izaten jarraitzen zuela, Arkupeak-ek, aspertu gabe, la-nean jarraitu zuen, eta bai Nafarroako Gobernuari, bai erakunde ekonomikoei proiektuan parte har vezaten eskatu zieten.

Allik eta Sanzek, Nafarroako presidenteek, omenduen bestara joaten zirenean hitz onak izan zituzten arren, Nafarroako Gobernuia iheskor agertu zen.

Bi aldiz eman zuten ezezkoa, proiektua egiteko laguntza eskatu zitzaienean. Hirugarrenean asmatu! 40.784,00 euro eman baitzituen 81.569,33 euroko aurrekontua zeukan Doneztebeko adinekoen proiekturako; baina, ohartarazi zuen bideragarritasun-plana behar zela, eta horregatik interesatuen kopurua eta mantentze ekonomikoa eta asistentziala aztertuko zituela. Diru-laguntza horrek ez zuen esan nahi obra egiteko laguntza zenik. Hori Arkupeak-ek Pantxoenea etxea erosi ondo-ren izan zen.

Presidenteak hainbat bilera egin behar izan zituen Zuzendaritza Batzordeko kideekin eta delegatuekin.

Zuzendaritza Batzordearen bilera askotako aktak daude, eta horietan Pantxoenea-ko finka eskuratzea erabakitzentz da Adinekoen Egoitza, Eguneko Zentroa eta Arkupeak-en Egoitza izateko. Horretarako, presidenteari eta diruzainari ahalmena eman zitzaien mota guzietako gestioak egin, eta finka hori eros-teko.

2001eko maiatzaren 28an Zuzendaritza Batzordeak egin zuen bileran, egoitza hori martxan jarri aurretik, bideragarritasun plana

egitea erabaki zen. Horren kostua 1.000.000 pezeta izango zen.

Presidenteak baita ere jakinarazi zuen finkaren prezioa 60.000.000 pezetakoa zela.

Finantzatzeko, Arkupeak-en etxebizitza saltzea proposatu zen (Parroquia kalea, 5-7,2.a). Batzordeak ahalmena eman zion presidenteari era guztietako gestioak egin zitzan.

2001eko uztailaren 18an egindako bilkuran, etxebizitza 17.500.000 pezeta eta 20.000.000 pezeta artean saltzeko baimena eman zitzaión presidenteari. Diru hori hirugarren adinekoen egoitza egin zedin, Pantxoenea finkaren erosketa finantzatzeko erabiliko zen.

Finkaren prezioa ordaindu ahal izateko, hamalau milioi pezetako mailegua hartzeko baimena eman zitzaión. Mailegua Nafarroako Kutxarekin egin, eta bi urteko epean ordainduko zen. Mailegu horri esker, finkaren ordainketarako, hirurogei milioi pezeta osatu ahalko ziren, eta horren erosketa-eskritura urriaren 31n sinatu zen Lesakako notarioaren aurrean.

Hori dela eta, Arkupeak-ek 2001eko urriaren 31n erosi zuen Pantxoenea etxea. Indiana estiloko eraikin zaharra zen, XX.mende hasierako, Pedro Oroquieta eta Carmen Gómez senar-emazteek egina. 1941ean etxea Cesáreo Crespo senar-emazteen iloba bati saldua izan zen, eta hark bere seme-alabei utzi zien, eta egun hortan, Arkupeak-ek erosi zuen.

Lehen gastuei aurre egiteko bi laguntza eskatu zitzakion Nafarroako Gobernuari: bata etxea eta inguruko lurra erosteko, eta bestea proiekturako.

Proiektua 50 oheko egoitza sortzea zen berez baliatzen zirenentzat eta ezinduentzat, baita eguneko zentroa eta Arkupeak-en egoitza ere proiektuan sartzeko asmoa zen.

Arazo ekonomiko larriak zirenez, Gobernuari eta aurrezki erakundeei laguntza eskatzeaz gain, Fundazioa sortzea pentsatu zen lagunza publiko eta pribatuak eskuratzeko.

Etxebizitza salduta, Pantxoenea etxearen salerosketarako eta adinekoendako egoitzaren bideragarritasun-azterketarako gastuen lehen zatiari, aurre egin ahal izan zitzaión. Bideragarritasun azterketarako, Malerreka inguruan, egoitzaren beharrari buruz egindako inkesta baliatu zen.

Amma Baliabide Asistentzialak izenburu honenkin egin zuen azterlan hori: «Adinekoak Doneztebe inguruan: beharren azterketa». Ondorioen artean honako hauek nabarmen-tzen dira: etxez etxez arreta-zerbitzuen gabeziak, eguneko eta egoitzako baliabideen gabeziak, 50 plaza inguru izango zituzkeen erabilera anitzeko egoitza-zentro baten komenigarritasuna, berez baliatzen zirenentzat, edo mendekotasun arin eta moderatuak zituztenentzat egoitza-zentro bat Donezteben erreferentzia gisa, eta zerbitzuak dituen zentro gisa egina.

Hau da: egoitza-plazak, eguneko egonaldirako zentroa, etxez laguntza-zerbitzuak, zaintzaileen prestakuntza, geriatrikoko bainugela eta gela psikologikoa. Bukatzeko, adierazi zuten “horrelako zentroak berez baliatzen direnentzat edo dependentzia arin/moderatuak dituztenentzat izango lirateke; eta garatu beharreko laguntza-zerbitzuak beren etxeetan bizi diren, eta ezintasun-maila desberdinak dituztenei, zuzenduta egongo lirateke. Laguntza jasotzen duten zainketa-maila handiko adinekoek Iruñeko zentro espezializatuagoetan jaso beharko lukete; eta, horretarako, kolaborazio-akordioak egin beharko lirateke ezaugarri sozio-sanitarioak dituzten zentroekin”.

2001eko uztailaren 31n, Zuzendaritza Batzordeak baimena eman zion presidenteari Parroquia kaleko etxebizitza saltzeko, era honetan:

- Salmenta prezioa: 17.000.000 pezeta.

Arkupeak-ek adinekoen egoitza eraikitzeko beharrean gelditu gabe jarraitu zuen arren, Gizarte Ongizateko Departamentuak 2007ko maiatzaren 23an aurkeztu zuen txosten bat, gure eskualde inguruan eta adinekoei buruzko datuak biltzen zituena. Horren arabera, ez

zuen lehentasunik plaza kopuru jakin baten egoitza-zerbitzua eraikitzeak.

Argi eta garbi adierazten zen ez zegoela plaza berrien eskaerarik, inguruko hiru egoitzetan behar bezala erantzuten zitzaiela.

Horretaz gain, aipatzen zen tutoretzapeko apartamentuei, batez ere erabili gabe zeudenai, beste erabilera bat eman behar zitzaiela, hau da, egoitza txiki baten antzeko zerbitzuak; beren kabuz baliatzen ziren etxebizitzek baldintza egokiak betetzen ez bazituzten, hain zaintzeko, eta beharrean dauden kasu bakanei arreta emateko.

Eta bukatzeako honako hau adierazten du: "Nafarroako Foru Komunitatean, egoitza-plazen hornidura handitzeko beharrari buruz egindako azterlan guztiek merkatu asea dugula. Merkatu hori zerbitzuen sektoreko kontzentraziora eta espezializaziora doa. Horregatik ez da komenigarri ZENTRO BERRIAK ERAKITZEA, eta hori da hemen proposatzen den gauza bera".

Proposamen horrek asko gogogabetu zuen Arkupeak, eta bere ahaleginak alferrikakoak zirela ikusita, zituzten asmoei konponbidea jartzen saiatu ziren gutxienez zati batean.

Abenduan, Ongizate kontseilariarekin, Mallekako Mankomunitateko ordezkariekin eta Doneztebeko Udalarekin, egoitza eraikitzeari buruz egindako bileraren ondoren, eguneko zentro bat prestatzea efektiboagoa zela-eta, behoko solairuan kokatuko zela erabaki zen, eta goiko pisuak beste jarduera batzuk jartzeko zain geratuko zirela. Ezintasuna zutenak zentroa garraitzea Nafarroako Gobernuaren kontu izango zen.

Arkupeak-ek gestio asko egin zituen. Ondorioz, Udalak eta Mallekako Zerbitzu Mankomunitateak eguneko zentroa martxan jartzea erabaki zuten.

Horretarako, Arkupeak-ek eta Doneztebeko Udalak finkak trukatzea adostu ondoren, aurreik gaia aztertu egin behar izan zuten.

2008ko irailaren 30ean, Doneztebeko Udalean trukatzeko baldintzei buruz hitz egin zen.

Baldintza horiek guztiak 2009ko martxoaren 31ko osoko bilkuran aztertu ziren. Horretan, laburbilduta, honako hau zioen hartu zen erabakiak: Doneztebeko Udalaren finka batzen zati bat, Arkupeak-en beste finka batekin trukatzeko expedientearen berri eman zen". Horren helburua da Mallekako, Baztan eta Bidasoa-ko gizarte-zerbitzua handitzea, eguneko zentroa eta hirugarren adinekoentzat laguntza-zentroa eginez.

Udalak 1992ko urriaren 28an hartutako erabakiaren bidez, dohainik utzi zitzaison Arkupeak-i udal lokala erabiltzeko eskubidea. Bestalde, Arkupeak Aranzokoko bidean dagoen Pantxoenea izeneko finka baten titularra da. Pantxoenea etxea eroria dago.

Eguneko zentroaren eraikuntzaren gestioa Doneztebeko Udalak eginen du.

Udalak aintzat hartuko du Arkupeak-ek hiru gela erreserbatzeko duen interesa Eguneko Zentroan eta Hirugarren Adinekoentzako Laguntza-Zentroan.

Etorkizunean zentroa lekuz aldatu edo desagertuko balitz, Pantxoeneako finka gizarte ekintzetara bideratuko da; batez ere, hirugarren adinekoen beharrak asetzera.

Ondasun hori udal ondasunarekin trukatzen da, trukaketa horren bidez lortu nahi diren udal-helburuak lortzeko egokia delako.

Ondasun bakoitza, peritu-tasazioen arabera, ehun eta hirurogeita hamabost mila eta laurreun eurotan (175.400 euro) baloratu da.

Azkenik, alkateari ahalmena eman zaio erabaki hori betearazteko behar diren agiri guztiek sina ditzan.

Udalak bere gain hartuko ditu trukaketa sinatzeak sortzen dituen gastuak (notarioa, erre-gistroa, epaitegia eta abar).

2008ko ekainaren 20an, Arkupeak-eko Zu-

zendaritza Batzordeak ezohiko bilera egin zuen, eta “Felipe Ganboa presidenteari, Eusebio Maritorenaren presidenteordeari eta José Oronoz diruzainari, baimena eman zitzaien beharrezkoak diren gestio guztiak egin zitzaten, Donezteben dagoen, eta elkartearena den Pantxoenea finka trukatzeko ondasun honekin: Santa Luzia kaleko 5 zenbakia duen etxeko 2. solairuarekin (hau da udaletxe zaharreko 2. solairuarekin). Lokal hori Doneztebeko Udalarena da, eta Arkupeak-ek bulegoak han dauzka. Trukaketa horren helburu bakanra da aipatutako Pantxoenea finkan eguneko zentro bat egitea hirugarren adinekoentzat eta, aldi baterako, horientzat ere laguntza-zerbitzuak jartzea.

“Aldi berean, aipatutako hiru pertsona horietako edozeini ahalmena ematea erabaki zen, Arkupeak elkarteararen izenean, aipatutako trukea formalizatzeko beharrezkoak ziren dokumentu publiko eta pribatu guztiak eman eta sinatzen zitzaten”.

Truke-eskritura Doneztebeko alkateak eta Arkupeak-eko presidenteak sinatu zuten, 2009ko maiatzaren 5ean, Lesakan, María Teresa Pérez notarioaren aurrean.

Ondasun bakoitzaren prezioak berdinak izan dira: ehun eta hirurogeita hamabost mila eta laurehun euro (175.400,00 €, horregatik, bi aldeek adierazi dute ez dutela ezer ordaindu beharrik”.

Krisi ekonomiko handiaren eta erakundeen interes eskasaren ondorioz, proiektua bertan behera utzi zen. Zein izango da bere etorkizuna?

XABIERKO SAN FRANTZISKOREN AMAREN ETXEA AZPILKUETAN



Azpilkuetako Dorre etxea

Xabierko San Frantziskoren jaiotzaren 500 urteurrena zela eta, Arkupeak-ek haren ama Maria Azpilkuetakoa gogoratu nahi izan zuen, Casa Torre jauregian bizi izana baitzen. Aita hil zitzaionean, “Azpilkuetakoa jauregiko andere” bihurtu zen. Jauregi hora suntsitu ondoren, gaur egungo Dorre Berria hondakinen gainean eraiki zen 1741ean.

2006. urtean 5.mendeurrena ospatu zen eta, horregatik, Nafarroako Elizak eta agintari zibilak zenbait jarduera prestatu zituzten, baliabide handiak jarriaz.

Arkupeak pozik elkartu zen hain gertakari handira, eta eskatu zuen aurrekontuaren zati bat Maria Azpilkuetaren gurasoak, eta jaio eta bizi izan ziren tokiak gogoratzeko erabil zitzaten.

Jaso jaunak, santuaren aitak, inskripzio bat dauka bere etxean “Ici ont vecu ancestres paternels de St Francois-Xavier”. Baino Azpilkuetan santuaren ama gogoratuko duen ezer ez dago. Etxe bat bada esku pribatuetan.

Arkupeak-ek eskatu zuen, esku pribatuetan zegoenez, jabe horiekin behar zen gestioa egiteko, etxea Xabierri dagokion erlijio eta kulturaren museo bihur zedin. Horrela, Bertizko Jaurerriarekin, Urdazubiko eta Zugarramurdiko kobazuloekin eta beste hainbat jauregirekin, inguruko turismo-eskaintza osatuko litzateke.

Bide beretik, oso interesgarria izango litzateke Jaso, Azpikueta eta Xabierren arteko anaitasun ekitaldiak antolatzea.

Gestio guztiak egin arren, Nafarroako Gobernuan eta Baztango Udalean, ez zuten erantzun positiborik jaso, eta Arkupeak-ek atzera egin behar izan zuen. Talde txiki batek, behintzat, santua eta haren ama gogoratu nahi izan zuen, eta oinez egin zuten, hainbat etapatan, Azpikueta eta Xabierren arteko bidea.

GIZARTE- SEGURANTZARAKO BULEGOA DONEZTEBEN

Gizarte-Segurantzako Institutu Nazionalak bulegoen kopurua handitu nahi zuela jakinda, Arkupeak harremanetan jarri zen Nafarroako arduradunekin.

Elkarteari jakinarazi zioten bazutela kezka Nafarroako iparraldeak behar zuen arretarekin. Bi inguru jarri zituzten: bata, Azpirozko portutik Aranoraino, eta bestea Belateko portutik Urdazubiraino, Baztan osoa gurutzatzu.

Zalantzaren bat bazegoen eremua ez zelako oso zabala eta biztanle kopurua, 28.000 inguru, txikia zelako, Nafarroa osoko milioi erdia kontutan hartuta.

Arkupeak-ek ikusarazi zien bazirela beste arrazoi garrantzitsu batzuk inguru horretan bulegoa jartzeko: bata, bi portuak, Belate eta Azpiroz, zeharkatuz Iruñera iristeko zailtasuna; eta bestea, biztanleen izaera, euskararen erabilera nagusia, eta biztanleek baserri eta auzo txikietan sakabanatuta egotea.

Arkupeak-ek, behin eta berriz, esan zuen Doneztebe leku aproposa izan zitekeela hura kokatzeko eta, gainera, alkateak dohainik eskaintzen zuela herriaren erdian lokal bat: Udaletxe zaharra. Bestalde, Doneztebek zerbitzu asko zituela (saltokiak, bankuak, aurrezki-kutxak, osasun-zentroa... eta komunikazio ona).

Gizarte Segurantzako Institutu Nazionaleko arduradunek urtero hamabost mila pertsona gutxi gora-behera azaltzea aurreikusten zuten; horietatik, goiti-beheiti, bost mila pentsiodunak.

Bulegoa 1997ko maiatzean 26an ireki zen, baina funtzionamendua egokia izan zen arren hainbat urtetan, langilerik ez zegoelako, batez ere euskaraz zekitenak, gainbehera joan zen, eta astean bi egunetan bakarrik ematen zuten zerbitzua. Pandemia famatuaren aurrelik, oso modu irregularrean funtzionatu zuen, kexa askorekin. Azkenean itxi zen, gutxienez, 2022. urte arte.

Funtzionamendu erregularra eskatuz, sinadura bilketa egin zen.

ARKUPEAK-EN PARTE-HARTZEA NAFARROAKO ADINEKOEN KONTSEILUAN

1997ko azaroaren 24an, Nafarroako Gobernuak Adinekoen Nafarroako Kontseilua sortzea onartu zuen; 21 kide zituen organo kolegiatu eta aholku-emailea zen. Hogeita bat horietan, Gobernuko ordezkariez gain, 2.000 bazkide baino gehiago zituzten adinekoen el-

karteen artean zazpi banatuko zituzten. Horrela saiatzen ari ziren, adinekoekin zer ikusia zuten gaietan beraiek protagonista izan zitezzen.

1998ko martxoaren 17an hasi zen martxan Kontseilua, Felipe Ganboa Arkupeak elkarteko presidentea bigarren presidenteordea izendatuta.

1998ko urriaren 1ean, Iruñean, adinekoen nazioarteko eguna ospatu zen. Felipe Ganboak parte hartu zuen, eta euskarazko aurkezpen labur bat egin esanez:

Arkupeak elkartea 44 herrik osatzen zutela, Baztan, Malerreka, Bortziriak, Leitza eta Urumeko jendeak. Nekazaritzako jendea gara, eta gure ingurua zaindu nahi dugu, baita gure hizkuntza ere. Hitzaldian eguneko zentroak sortzeko aukera aztertua izan zedila eskatu zuen; baita ere jantokiak prezio eskuragarriaren izatea, langile autonomoei eta, batez ere, hamasei edo hemezortzi orduz lan egiten zuten etxeandreei laguntza, eta pentsio-limosna ospetsua, Sovi izenekoa, goratzeko.

Arkupeak-ek urteroko bileretan parte hartzen jarraitzen du.

SARIAK

Hainbat lagunek sortutako eta Felipe Ganboak zuzendutako Arkupeak elkartea, pixkanaka, erakunde partikular eta ofizialek ezagutu zuten, eta askotan prentsan agertzen zen elkarte miresgarri gisa, lehen aipatutako 40 herritan eta Euskal Herriko beste inguru batzuetako jubilatuen alde lan egiten zuena.

Nafarroako Aurrezki Kutxak aitortu zuen Arkupeak-en jarduera ugariek laguntza, kultura eta aisialdiaz arduratzea suposatzen zutela.

Horregatik, Urrezko Klubaren Intsignia eman zion Felipe Ganboa presidenteari klub horren bitartez, eginiko merituak eta jubilatuen eta pentsiodunen alde egindako lan bikaina aintzat hartuta.



Saria eta egiaztapen-pergamoia 1990eko azken jaian, abenduaren 21ean, eman zitzaizkion.

2003ko uztailaren 24ko “Diario de Noticias” egunkariak honako hau jakinarazi zuen: “Independiente el Irunés” aldizkariak Felipe Ganboa urteko Bidasotarra izendatu zuela, Fernández D’Arlas, Elizondoko musikologoarekin batera. Antonio Lekuona Narbarte da aldizkariaren zuzendari eta kazetari beteranoa.

Sari-ematea Hondarribiako “Real Club de Golf”-en egin zen. Pablo Colino, Juan Pablo aita santuaren kapera-maisua, izan zen ekitaldiko buru.

Arkupeak-en 25 urteko historia

Historia de los primeros 25 años

Egunkariak zioen saria ematen zitzaiela arteen, zientzien, kulturaren, kirolaren eta humanitateen alorrean nabarmentzen ziren Bi-dasoako biztanleei, eta gizarte osoarentzat, bereziki, garrantzitsua eta onuragarria zen lana egiten zutelako. Felipe Ganboaren kasua zen.

“Sunbillako Lapitxeta etxearen jaio eta Donezteben bizi zen. Beste hiru lagunekin batera Arkupeak elkarteko sortzailea izan zen. Elkarte horrek, 17 urte geroago, 3.400 bazkide ditu. Hirugarren adinekoen gizarte eta laguntza arloan lan ikaragarria egin du eta, gainera, Donezteben sendotu Malerrekarako adinekoen egoitza bat sortzea asmo duen elkartea.


Saria aldizkariaren erredakzio-kontseiluak eta elkartea eta erakunde publiko eta pribatuiek proposatuta ematen zen. Felipe Ganboaren kasuan, Erredakzio Kontseiluak proposatu zuen, eskualdeko erakunde askok, behin eta berriz, eskatu zutelako.

Arkupeak elkartearrentzat sari oso berezia izan zen “Carlos III.aren Gurutzea” deitutako saria. Nafarroako Gobernuak 2010eko maiatzaren 3an eman, eta ekainaren 29an jaso zuen Miguel Sanz, Nafarroako Gobernuko presidentea, buru izan zen saio batean. Saio hori Jauregiko Tronu Aretoan egin zen, eta hauxe azpimarratu zen: Nafarroako ia 50 herritako adinekoak integratzeko eta dinamizatzeko egindako funtsezko lana.

Aldizkariaren 23.alean, Nafarroako Gobernuko Miguel Sanz presidentearen agurrean adierazi zen honako hau azpimarratu zela saria emateko saioan: “Arkupeak-ek bere bazkideen artean sortzen jakin duen familia, adiskidetasun eta laguntasun giroa inoiz izan ez den bezalakoa da. Horrekin guztiion borondatea irabazi duzue, eta gizartean adinekoek duten garrantzia erakutsi duzue. Baita ere, gizarte osoak zenbat eskertu behar dizuegun zuen bizitza osoko lan eta sakrifizio eredua”.

Kondekorazioa gurutze esmaltatu bat da, eta bertan Karlos III.a Noblearen irudi lasaiagarria azaltzen da; Nafarroako Errege Artxibo Nagusian kontserbatutako errege-zigiluaren

irudia da. Gurutze horren inguruau honako hitz hauek daude: «Karolus Regis Navarre». Atzealdean, Nafarroako armaria ageri da, «Nafarroako Foru Komunitatea» esaldiaren gainean, eta «Karlos III.a Noblearen Gurutzea» hitzak.



MANTENTZE-GIMNASIA

Lehen adierazi dugun bezala, Arkupeak-en sortzaileek nahi zuten jubilatuak beren etxetik ateraraztea herriko eta inguruko kideekin harremanean jartzeko; gaztaroen ezin egin zutenez, kulturari denbora eskaintzea, herrialdeko eta atzerriko tokiak, bizitza eta ohitura desberdinak ezagutzea, aisiaaldiko lekuetan entretenitzea, minak ahaztea, eta adinari egokitutako kirolen bat egitea. Eta horixe lortzen saiatu zen gimnasia bezalako ikastaro eta praktika-ludikoen antolaketarekin.

Elkartea sortu eta urte gutxira, yoga eskolak hasi ziren hainbat herritan.

1994. urtean 19 herrian ematen ziren. Horietako batzuetan ezin izan zen behar hainbesteko kopurua osatu, eta jubilatu gabe zeuden beste batzuei ere eskaini zitzaien.

Gehien bat emakumeek parte hartzen zuten ekintza hori ezagutzen emateko, 1995eko apirilean, lehen aldiz, guztiekin parte hartu zuen erakustaldi bat antolatu zen Iruñeko Anaitasuna pabiloian.

Saioa goizeko 11:30etan hasi zen, Javier Larralde txistularia buru zen desfilearekin. Talde bakoitzak Arkupeak-en anagrama zeraman kamiseta zuria eta txandal beltza zituen soinean, eta kantxara atera ziren irakaslearekin ariketak ordu laurden batez egiteko. Bitxikeria gisa esan, Migel Mariezkurrenak, "Xarrak", 93 urteko jubilatuen dekanoak, parte hartu zuela.

Saio hauek egin zituzten: sei taula baloiarekin, badminton erraketekin eta makilekin saioak, yoga saioa eta baita materialik gabeko era-kustaldia ere.

305 gimnastek hartu zuten parte: Irundik 20, Etxalartik 12, Igantzik 14, Sunbillatik 14, Arantzatik 22, Doneztebetik 16, Legasatik 15, Oronoztik 22, Aniztik 12, Elizondotik 16, Leitzatik 20, Ezkurratik 14, Eratsundik 18, Zubietatik 12, Iturendik 14, Elgorriagatik 26, Donamariatik 10, Oiztik 14, Saldíastik 14. Amaia Ezponda, Mitxel Ibarrola, Esteban Leitza, Guillermo Gómez, Miren Etxeberria, Patxiku Ganboa eta Patxi Txokarro izan ziren monitoreak.

Ekitaldia bukatzeko, El Toro ostatuan bazkaldu zuten Juan Cruz Alli Nafarroako presidentea han zela. Aukera hori aprobetxatu zuen Felipe Ganboak inguruan igerileku estali bat eskatzeko.

Bazkideak kirolaren garrantziaz konbentzitu ahal izateko, herriz herri ibili behar izan zuten,

adin horretan, kirolak bizi-kalitateari eusten eta are hobetzen laguntzen zuela ulertarazteko. Egin beharreko ariketak haien adinera egokituta zeudela jakinarazi zitzaien. Gainera, arnasketa eta kontrol mentaleko ariketak egiten zirela.

Pixkanaka-pixkanaka, taldeak gutxituz joan ziren, batez ere, gizonezkoek utzi baitzuten, horiek, emakumeen ustez, tabernan egotea nahiago zutelako.

1997ko apirilaren 3an, berriz egin zen erakustaldia toki berean. Ondoren, Iruña-Park hottelean elkartu ziren Miguel Sanz, Nafarroako presidentea, bertan zela. Besta, jakina, Modesto akordeoi-jotzailearen dantzaldiarekin bukatu zen.

Hauek izan ziren irakasleak: Daniel Fioraman te, Oizkoa; Fran Puertas, Berakoa; Amaia Estomba, Arantzakoa; Patxi Txokarro, Etxalar koa; Miren Etxenike, Labaiengoa; Guillermo Gómez, Leitzakoa; eta Cristina Fernández, Irungoia.

Mantentze ikastaroen zazpigarren urteurrena ospatzeko Elizondon egin zen erakustaldia, Leitza, Irun, Bera, Etxalar, Arantza, Igantzi, Sunbilla, Oiz, Narbarte, Donamaria, Urdazubi, Arizkun, Amaiur, Elizondo eta Almandozeko taldeek parte hartuz. Ordurako, hainbat herrien hutsunea nabaritu zen.

Aldizkariaren 12.alean, Amaia Estomba ira-



kasleak azaldu zuen gimnasia arina egiten zutela, mantendimendukoak: "Yoga bezalako tekniketan inspiratua, luzaketa asko eginez". "Jolas eta dantza asko egiten ditugu, gorputz-gimnasia hutsa ez dadin izan, eta jarrera altxatzen laguntzeko". "Aldi berean, haien arteko harremanak bultzatu nahi dira, erne egoiten eta arau batzuk betetzen ikas dezaten".

Yoga oreka orokorra bilatzen duen jarduera da: emozionala eta mentala. Buruak eta gorputzak aldi berean lan egin dezaten saiatzen da, bake eta erlaxazio egoera lortzeko. Bizzarreko, artikulazioetako eta nerbioetako mi-nak eta antsietatea arindu egin daitezke hori eginez gero. Gainera, ariketak osasun-gaiei buruzko hitzaldiekin tartekatzen dira: nola jan, nola lo egin, nola arnasa hartu, nola lasaitu eta kontzentratzeko moduak.

Hainbat urtetan, jarraitu zuten erakustaldiek Anaitasuna pabiloian. Zehazki, 2003an 107 lagun aritu ziren, Arantza, Bera, Donamaria, Elizondo, Etxalar, Leitza, Narbarte, Sunilla, Urdazubi eta Igantziketik etorriak.

2004, 2005, 2006, 2007 eta 2008an erakustaldia Berako kirolegian izan zen.

Denak besta batean elkartzearekin eta antzeko bzipenak izanik, anaitasun moduko giroa sortzen dela nabarmendu zuten.

2008ko erakustaldian, hildako lau gazte omendu zituzten: Unai Etxepare eta Xabier Saralegi, Lesakakoak; Luis María Pikabea eta Xabier Zubietza, Berakoak. Mendizaleen amek, anai-arrebek eta baten alargunak hainbat opari jaso zituzten: txapela eta plakak haien izenekin, makila artistikoak, eta loreontziak hortentsi urdinekin, miresmenaren eta maitasunaren lekuko.

Hurrengo urteetan, Elizondoko eta Doneztebeko erakustaldiak egin ziren.

Laburbilduz, aipatu gimnasiako ikastaroek jarraitu zutela, baina normala den bezala, herri batzuetan desagertu egin ziren; alde batetik, parte-hartzaleak gero eta zaharragoak zirela-ko, eta bestetik, bazkide berrieik beste jardue-

ra batzuk nahiago izan zituztelako: igeriketa, mendi irteerak, pilates, taichí, memoriaren tai-lerra edo aquagym.

OMENALDIAK

Arkupeak martxan jarri, eta lehenengo 25 urtetan bazkide-kopuru handia biltzen zen eta garrantzi berezia izan zuten bi data hauek: Normalean, ekainean ospatzen den omen-duen eguna, eta urte bukaerako besta, aza-roan edo abenduan.

Zalantzak gabe, omenduen eguna nabarmentzen da hildako bazkideen oroitzapen berreziarekin. Ehun urtetik gorakoak gogoratzu hasi zen; gero, laurogeita hamar urtetik gorakoak; eta beranduago, 85 urtetik gorakoak eta, jakina, 50 eta 60 urtez elkarrekin bizi izan diren bikoteak. Gaur egun arte irauten duen ohitura da. Aurrerago ikusiko dugu modu berrean jokatu zela beste askorekin ere: lagun-tzaileekin, kirolariekin, izen handikoekin eta abar.

Hasieran, omendutakoien izenak besterik ez ziren agertzen aldizkarietan, baina urte batzuk geroago, haien datu batzuk, argazkia eta orio-garri txiki bat azaltzen ziren.

Arkupeak-ek egin zuen lehen ekitaldi publikoa Doneztebeko frontoian izan zen, eta aurkezpenaz gain, Lorentxo Oyarzabal eta Pilar Garro aitona-amonak eta Francisco Vertiz Doneztebeko parroko jubilatura gogoan izan ziren.

1987ko programan, Herrien Arteko Anaitasun besta antolatu zen, aldi berean, eskualdeko ehun urtetik gorakoak omentzeko asmoz: Francisco Graziarena eta Antonia Mariezku-rren, biak Sunbillakoak.

Baina omenaldi hori 1990 arte atzeratu zen, urte horretan betetzen baitzituen 100 urte Franciskok. Antoniaren berrikik ez dago, ziur aski hil egin zelako.

Aurretik, Oronoz-Mugairiko Petra Erize eta

Ramon Latasa izan ziren omenduak.

1989ko ekainaren 9an egin zitzaien omenaldia ehun urteko Petra Erizeri. Eguna, Oronoz-Mugairiko kaleetan barna, soinujole eta txistularien dianarekin hasi zen. Jose Maria Cirarda artzapezpikuak, buru zela, eta Vizente Sanzberro parrokoak eman zuten meza 10.00etan. Artzapezpikua Arkupeak-ek antolatutako ekitaldi askotara joaten zen. Nafarroako Gobernuko ordezkariez gain, omenduaren familiaurrek eta lagunak, eta Arkupeak-eko bazkide ugari agertu ziren. Ordurako, Arkupeak-ek 1800 bazkide bazituen.

Nafarroako Gobernuak koadroak, argazkiak, erretratuak eta bestelako opariak egin zizkion. Oronozko ordezkariak aginte makila zizelkatu bat eman zion eta ohorezko alkate izendatu zuen. Bantzango alkatearen oparia lore-sorta bat izan zen, eta eman zionean hauxe esan zion: "Bakar bat ere ez da zu bezain polita".

Bestak frontoian jarraitu zuen hauiek girotuta: joteroek, Arizkungo dantzariek, Garmendia eta Azpillaga bertsolariek, musikariek eta, herri kiroletan, aizkolariek eta harrijatsotzaileek.

Kultur hamabostaldiaren barruan, 1989ko

urriaren 24an, Arkupeak-ek omenaldi berezia egin zion, Sunbillan, Ramon Latasa aizkolarriari, nahiz eta osasun egoerarengatik ezin izan zen bertaratu. Burmuineko bi tronbosi pasa zituen, diabetesa zuen, hanka bat mozta zeukan eta Elizondoko egoitzan bizi zen.

1929ko apirilaren 26an jaio zen Xuantenea baserrian. Artzain eta egurgile lanetan aritu zen, eta enborrak mozteko abilidadearengatik miresten zuten.

Ramonen herritar eta bazkide ugari bertan zirela, goizeko hamarretan, parrokian meza ospatuz, hasi zen jaialdia. Meza ondoren, herri kirolen ekitaldia egin zen, erabat betetako frontoian. Aizkolari onenek parte hartu zuten binakako saioan: Mindegia-Arrospidek, Mendizabal-Larretxeak, eta Arria II.a-Olasagastik. Baita Perurena harrijasotzaileak, trontzalariek eta hainbat aizkolari gaztek ere egin zuten saioa. Ekitaldian, tartekatuz, herriko dantza-rik, txistulariak, Garmendia eta Azpillaga bertsolariak eta Erramun Martikorena aritu ziren.

Arratsaldean, jende asko Elizondoko adinekoen egoitzara joan zen, han baitzuten zain Ramon. Sarreran, askoren artean inguraturik,



Ramón Latasa, bazkide eta lagunak, Elizondoko adinekoen egoitzan

Arkupeak-en 25 urteko historia

Historia de los primeros 25 años

Arkupeak-ek eta herrikideek opariak eman zizkioten.

1990eko otsailaren 2an, Sunbillako Espelosin baserriko Francisco Graziarenaren txanda izan zen, mende bat bete baitzuen. Bizitza osoan baserriko lanetan aritu izana, desagertu zen Bidasoa trenbideko lanetan aritu zen hilabete batzuetan izan ezik. Soldaduska egitetik libratu zen bakanetako bat izan zen, nahiz eta lortzeko, diru mordoxka ordaindu behar izan zuen. 1919ko urtarriaren 7an ezkondua, sei seme-alaba izan, eta 1985ean alargundua. Jaiotetxean bizi izan zen semetako hirurekin. Beste seme bat, Los Angelesen bizi dena, aitaren omenaldira etorri zen.

Franciskok ez zuen izan omenaldian egoterrik, gripe-prozesu txiki batek jota baitzegoen. Hori zela eta, Nafarroako Gobernuko presidenteak etxera joan zitzaison bisitan, bere laguntzaile, Udaleko eta Arkupeak-eko hainbat kiderekin batera. Opari asko eman zizkioten.

Sunbillako frontoian, Basilio Sarobe parrokoak, koralak abestuz, eman zuen mezaren ondoren, eskualdeko ehunka afiliatu mobilizatuta, Arkupeak-ek antolatutako besta handi bat ospatu zen. Ignacio Eizmendik ("Basarri") eta Iñaki Perurenak aurkeztu zuten ekitaldia. Garmendiaren eta Azpillagaren bertsoek lagunduta, Mindegia eta Larretxea aizkolariak nor baino nor aritu ziren; Erramun Martikorenak, ahots bikaineko kantariak, Nafarroako Navarrerias dantza taldeak eta Sunbillako dantzari txikiek ere parte hartu zuten.

Frontoian bazkaldu ondoren, berriz bertso, musika eta dantza gehiago.

Uste dugu garrantzitsua dela hemen jasotzea omenduak izan ziren beste batzuen izenak: gehienak Arkupeak-eko bazkideak edo arduradunak, eta haien memoria gordetzea merezi dutenak. Hauek dira: Mariano Izeta, Javier Larralde, Felipe Ganboa, Joxe Oronoz, Eusebio Maritorena, Ramon Elosegi etab...

1986tik 2010era bitarteko aldizkari guztiak aztertuta, ehun urteko batzuen izenak aurkitu ditugu.

1989ko urteko azken jaia mezarekin hasi zen. Jose Laboa, Panamako Aita Santuaren nuntzioa, etortzekoa zen, baina ezinezkoa izan zitzaison. Basarrik une unkigarria sortu zuen eta gero Manuela Aincibururi, 103 urteko amatxiri, bisita egin zitzaison Eguberriak zoriontzeko, eta emozioz bete zen. Zoritzarrez hurrengo urtean hil zen.

Batzuetan, omenaldien eguna ehun urtekoren bat gogoratzeko aprobetxatzen zen. Hala, 1995eko jaian, Patziku Etxeberriari oriopean berezia egin zitzaison, 101 urte bete baitzituen otsailaren 20an. Igantziko Iriberea etxearen jaioa zen. 18 urte zituela Ameriketara emigratu, eta 18 urtez han egon zen artzain. Aurreko urtean Igantziko herriak hainbat ekitaldirekin eta oparirekin omendu zuen.

Urte berean, Faustino Manterola eta Miguel Bajo Montilla (hilak) modu berezian gogoratuak izan ziren. Lehena Arkupeak-en sortzailea izana zen; eta bigarrena, Elizondoko ordezkarria eta presidenteordea bizi izan arte.

Arkupeak-ek bazkideak ez zirenkin ere izan zituen detaileak, Nafarroako inguru horretakoak izanik, gizartearren onerako orokorrean lan egin baitzuten. Hori izan zen 102 urteko Francisca Huarte erlijiosaren kasua. Anizen jaioa, Iruñeko Jesusen Bihotzko Esklaben komentuan bizi zen. Hantxe omendu zuten familiak eta kongregazioko kideek. Arkupeak elkartearren izenean, Eusebio Maritorena presidenteordea joan zen eta opari bat eman zion oroigarri.

Normalean, herrien arteko anaitasun-jaiak Donezteben, Elizondon edo Gorraizen ospatzen ziren. 1993koa, berriz, Leitzan ospatu zen, hor bizi baitziren omendu nahi zituzten bi erlijiosoak, urrezko ezteiak betetzen zituztelako.

Ospakizuna azaroaren 14ko goizeko hamarrtan hasi zen herriko txarangaren diana eta kalejirarekin. Jendez gainezka zegoen parrokian, hamaiketan meza eman zuten, abesbatzaren eta Azpillaga eta Narbaiza beretsolarien parte-hartearekin. Bukatzean, bi protagonistei opariak eman zitzaiakien: alde



Lorentxo Oyarzabal eta Pilar Garro aitona-amonak, eta Francisco Vertiz Doneztebeko parroko jubilatua

batetik, Francisca Telletxea Agirre, 69 urteko donostiarra, 50 urte betetzen zituen erlijio-monja gisa. Beste leku batzuez gain, 31 urte eman zituen Iruñean eta 17 Leitzan. Leitzan bizi zen. Bestalde, Nicolás Buldaini, 85 urteko Etxarri-Larraungoa, eta jubilatua, baina parrokiarekin elkarlanean aritzen zena. Aurretik Berueten eta Alesbesen edo Villafrancan apaiz egona zen eta gero Leitzako parrokoa izan zen.

Anaitasun eguna zenez, 13:00etan guztiak udal frontoira joan ziren, kirol jaialdia han zelako. ETBk eman zuen jaialdi hura. Haste-ko, Zelaik 20 aldiz jaso zuen 100 kiloko harria minutu batean, eta 13 aldiz 150 kilokoa. Ondoren, Mindegia eta Larretxea aizkolariek enbor bana moztu zuten. Mindegua irabazle. Jarraian, sei enbor, eta Larretxea irabazle sei segundoko aldearekin. Proba garrantzitsuena Iñaki Perurenak 267 kiloko harria esku batekin jasotzeko saiakera izan zen. Erraz altxatu zuen, baina epaileak baliogabetzat jo zuen, azken kolpean laguntzailearen eskua tartean sartu omen zelako. Nahiz eta nahigabetu, berriz saiatu, eta denbora laburragoan jaso, eta errekor berria lortu zuen. Beti bezala, bazkalondoan dantzarekin jarraitu zuen bestak Amalur orkestrak alaituta.

2000ko abenduaren 15ean Donezteben ospatu zen milurtekoaren azken jaia zortziehun bat baziiderekin. Jesus Goldaraz parrokoak eman zuen meza, eta Elizagoien eta Garmendia bertsolariak abestu. Ramon Elosegi tolosarra, Santiago Bidearen bultzatzaile nagusienetako bat, omendu zuten. Ramonek jakin zuenean Arkupeak elkarteko zenbait baziidek Baztan eta Iruña arteko ibilbidea eta Sakana aldeko bidea berreskuratu nahi zituztela, eremu bat txukunteaz arduratu zen, oso egoera txarrean zegoelako. Nafarroako Abelbide Lagunen Elkarteko baziide fundatzailea ere izan zen. Abuztuan, zirkulazio-istripu batean hil zen, Esako urtegitik gertu.

Ganboa presidenteak eskerrak eman zizkien haren senide Jose Migueli eta Pilarri Arkupeak elkarteari emandako laguntzagatik, eta plaka eta lore sorta jaso zituzten. Mezaren ondoren, Bordatxo dantzalekura joan ziren denak jaiaren programarekin jarraitzeko.

Bazkarira Miguel Sanz Nafarroako presidentea joan zen eta atzerapenagatik barkamena eskatu zuen. Ekitaldia bukatuta, Felipe Ganboaak aukera aprobetxatu nahi izan zuen, tokiko eta probintziako agintariei gogorarazteko beharrezkoa zela igerileku klimatizatu bat irekitzea Donezteben, guzton mesederako,

Arkupeak-en 25 urteko historia

Historia de los primeros 25 años

baina bereziki arazo erreumatikoak zituzten adinekoentzako. Gainera, bere ametsetako bat azaldu zuen: San Frantziskoren amaren Azpilkuetako etxea erostea edo lagatzea, garai hartako museo bihur zedin. Bi desio horiek ez zuten arrakastarik izan, nahiz eta gogor sainatu.

2000ko urriaren 11n Mariano Izeta izan zen Arkupeak-en omenaldia merezi izan zuena: euskal kulturaren alde egindako lanagatik, txapeldunen txapelduna aitoru zuten.

Elizondon emandako mezarekin hasi zen ospakizuna. Meza horretan, Garmendia eta Elizagoien bertsolariek abestu zuten. Bazkailondoan, presidenteak Marianoren merezmenduak aitortu, eta eskerrak eman zizkion argitaratzen zuen aldizkarian, Arkupeak elkartearren aldeko propaganda egiteagatik. Horixe bera egin zuten bi bertsolariek. Plaka eta txapel handi bat jaso zituen, "Txapeldunen txapelduna" inskripzioarekin. Ez zuen ahaztu Gabriela Goñi haren emaztea, eta beste txapel bat oparitu zion bordatu eder batekin: «Gizon haundi baten atzean beti dago andre on bat».

2001eko irailaren 28an, Euskal Herriko txistu eta, orokorrean, musika herrikoaren alde eta Arkupeak elkartean egindako lana eskertze-ko, Javier Larralde, txistularia eta Arkupeak-eko delegatua, izan zen omendua Arizkunen. Baita hainbat gimnasia bestetan parte hartzeagatik eta Arizkungo delegatu izanagatik ere.

Oscar Adinek aurreskua dantzatu zuen eta, omenduak eskatuta, Sandilio kalejiraren doinuek egin zuten bidea anaitasun bazkariraino.

Javier 1927ko abuztuaren 30ean jaio zen Arizkunen, Enekonea etxearen. Amak piztu zion musika herrikoaren zaletasuna eta Antonio Elizaldek, Maurizio mitikoaren aitak, txistua jotzen irakatsi zion hamar urte zituela. Estatu Batuetan artzain ibili zen bost urtez, eta etxera itzuli zenetik etengabe aritu da txistulari, dantza maisu eta ikertzaile lanetan.

Seme Patxirekin batera, "Baztango Folklorea" obra idatzi zuen. Obra horrek multil-dantzako pieza guztien partiturak biltzen ditu. Baita joko dantza ugari eta haien interpretazioak ere bi diskotan.

2022ko martxoaren 25ean hil zen, 94 urte zituela.



Eusebio Maritorena eta bere emaztea

2002ko urriaren 10ean, Joxe Oronoz txanda etorri zen. Jaioterrian, Iruritan, omendu zuten Arkupeak taldearen funtzionamenduan egindako lan bikainagatik.



Ayesa kontseilaria mahi erdian, Felipe Ganboa ezkerreko aldean, eta Joxe Oronoz aurkezlea

Iruritan jaioa, 72 urte beteak zituen. 24 urterekin Ameriketara joan zen, eta han hamar urtez artzain aritu zen; baita italiar batzuen barazki biltegi batean ere. Biltegi horretan ingelesa

ikasi zuen beste erremediorik gabe. 34 urte-rekin herrira itzuli eta, hamalau urtez, Elbetea herriko Baztango Zapatilategian egin zuen lan. Lantegia itxi ondoren, Dyan eta Gurutze Gorrian buru-belarri aritu zen, eta 1989an Arkupeak elkartean languntzen hasi zen: hasieran delegatu, eta gero diruzain. Zalantzariak gabe, Felipe Ganboarekin eta Zuzendaritza Batzordeko kideekin batera, jarduera guztien dinamizatzailea da.

Horregatik, egindako lan izugarria eskertzeko garaia baten. Jaialdia jaioterrian eta lankide eta bizilagun askorekin egin zen.

Lehenengo ekitaldia: Patxi Izko eta Jose-txo Mendioroz apaizek parrokian eman zuen meza. Homiliaren ondoren, Elizagoienek bertso saila eskaini zion. Erlijio-ekitaldia bukatuta, Dolores arrebak “eskertuz” jartzen zuen plaka bat eman zion, eta Maria Angeles Alzugarayk, Narbarteko ordezkariak, lore sorta. Nafarroako Kutxako “Obra Social”-eko ordezkariak euskal makila oparitu zion. Felipe Ganboak, hitza hartu, eta adierazi zuen omenaldia ez zela sari hutsa, baizik eta jarraitzeko akuilua: “Lan asko egiten duzu, eta omenaldi hau lanean pixka bat gehixeago jarrai dezazun da”. Ondoren, txapela jarri zion euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako esaldiarenkin: “Arkupeak-en zorionak zure lan haundiagatik”. Jaialdiak Baztan hotelean bazkaria-rekin jarraitu zuen. Bazkarira, Calixto Ayesta kontseilaria, hirurehundik gora bazkide eta Joxeren lagun inguratuz ziren.

2003ko urriaren 9an, Arkupeak elkartearak Eusebio Maritorenak, presidenteordea, omendu zuen. Zigako Iriberriko bordan jaio zen. Handik Leitzara jo zuen Sarrio papeleran lan egitea. Zigakoa den Isabel Huarterekin ezkondua, hiru seme-alaba dituzte eta orain, jubilazioan, oso-osorik elkarteari emana bizi da.

Omenaldiko ekitaldiak Elizondon eta Almandozan izan ziren. Elizondon hasi zen besta, Juan Bautista Irazokik, Leitzako erretoreak, eta Jesus Sotilek emandako mezarekin. Elizagoien bertsolariak bertso ederrak eskaini zizkion. Ondoren, omenaldia eta familiarekin batera jaso zituen oparien unea izan zen. Fe-

lige Ganboak jantzi zion grabatutako txapela eta Jose Mendiguren Arraiotz artisauak egindako makila eta plaka bat eman.

Ekitaldi hori bukatuta, Almandozeria joan ziren bazkaltzera, eta arratsaldean musika eta dantzaz gozatzen. Bostehun bazkide baino gehiagok hartu zuten parte.

2004ko urtarrilaren 16an, Donamariako Fulgencia Irazokik jaso zuen Arkupeak-en omenaldia, Iguringo Perotxenea etxearen. 1904ko urtarrilaren 16an jaio zen Berako Kaule auzoan. Sei seme-alaba, 19 biloba eta 22 biribiloba zituen. Eguerdian Fulgenciak Arkupeak-en eta Nafarroako Kutxako ordezkarien bisita izan zuen, eta lore sorta eta plaka oroigarri bat eskaini zizkioten. Arkupeak-en izenean Juana Mari Bertizek, Donamariako elkarteko ordezkariak, eta Kutxatik Doneztebeko bullegoko zuzendariak omendu zutenean, ehun urtekoaren irribarrea piztu zitzaison.

Beste ehun urteko batentzat ere, Ramona Varelaarentzat, oroitzapen berezia izan zen. Ramonak 100 urte bete baitzituen 2004ko martxoaren 7an, eta Urdazubi-Zugarramurdi-ko ehun urtetik gorako lehen emakumea izan zen. Bere bizitza bi herri horietan pasatu du.

Urte horretan bertan, Arkupeak-ek elkarteko ordezkari beteranoen lana aitortu zuen: Igantziko Patxi Txoperena 87 urtekoa, eta Oronoz-Mugairiko Manuel Arregi 88 urtekoa. Aurretik, Batzordeko kide izan ziren, eta denborarekin zeregin hori utzi, eta gaur egun bakoitza bere herriko delegatu ziren. Elizondoko parrokian emandako mezan, Bittor Elizagoienek hainbat bertso eskaini zizkien egindako merituak goraipatuz eta bere miresmena agertuz. Joxe Oronozek Arkupeak-en opari klasikoak eman zizkien: errespetuzko makila, txapeldunen txapela eta Nafarroako Kutxako plaka oroigarria.

2005eko maiatzaren 26an omenaldi bikoitza egin zitzaien Gorrainen, alde batetik, delegatu ohi guztiei, bizi zirenei eta hildakoei; bestetik, Calixto Ayesa Nafarroako Gobernuko kontseilaria ohiari, elkarteari emandako laguntza eskertzeko.

Arkueak-en 25 urteko historia

História de los primeros 25 años



Felipe Ganboa elkarteko presidente, M^a Jesús Zabalo emaztea eta Miguel Sanz Nafarroako presidente

500 bazkide bildu ziren: parrokiaren lehenik, eta gazteluko lokal batean gero. Presidenteak hartu zuen hitza kontseilari ohiari hitz eginez: "Ez dizut exzelentzia deitzen, Kalixto bakarrik, guretzat laguna zarelako eta esker ona merezi duzulako. Ikusiko dugu hurrengoek ere mereziko ote duten". Kalixtok Arkueak-ek izandako portaera eskertu zuen, eta Gizarte Ongizateko Departamentutik elkartarearekin izandako zazpi urteko laguntzaren errepasoa egin zuen. "Adiskide-harremana izan dugu, kargua gainditu duena. Elkartaren ekintza askotara joan gara eta, azkenean, kontseilariarena baino gehiago adiskide-harremana izan dugu".

Geroago egindako elkarrizketa batean adierazi zuen: "Ekainaren 26an, besta batean agur esan nienean, kontseilari bat galtzen zutela esan nien, baina lagun bat irabazi, eta horri eusten diot".

Felipe Ganboak plaka oroigarria eta Nafarroako armarriarekin koadro bat eman zizkion. 47 delegatu ohiez ere oroitu zen; horietako 15 hilak. Guztiei, han zeudenei eta hildakoen familiarrei plaka bana, eta protagonista guztien argazkiekin orla bana eman zizkien.

Gazteluko jatetxearen bazkaldu ondoren, nahi izan zuten guztiak dantza egin zuten Jose Angel soinujolearen gidaritzapean.

Donezteben 2009ko azaroaren 21ean, urte bukaerako bestan, 2009ko martxoaren 12an hil zen Jesus Goldaraz parrokoa omendu zen. Arkueak-eko hildako guztien eta Jesusek omenezko meza apaiz askoren artean eman zen. Bittor Elizagoinenak eta Pakita Mikelarenak bertso sentikorrrak abestu zituzten haien omenez; eta meza bukatzean, Joxe Oronozek eta Eusebio Maritorenak Iraizotzeko jaiotetxea irudikatzen zuen margolan artistikoa, oriomenezko plaka, eta landare eta loren osatutako zentroa eman zizkieten familiakoei. Ekitaldiari bukaera emateko, Aitor eta Jose Ramon musikariek Jesusek hain gustuko zuen «Urepeleko Artzaia» abestu zuten, eta bertaratutako guztien parte-hartzearekin Agur Jaunak.

2005. urtean, 85 urte betetzen zituztenak, edo diamantezko edo urrezko ezteiak ospatzen zituztenak omentzeko, Donezteben egindako bestan, detaile berezi bat izan zen Igantziko Angel Manterolarentzat: ehun urte betetzeaz gain 65 zeramatzan ezkonduta. Ignacia Etxeberria emaztearekin heldu zen,

eta Elizagoien bertsolariak bertso ederrak es-kaini zizkien, bai adinagatik, bai biak hainbes-te urtez elkartuta jarraitzeagatik.

2006ko abenduaren 16an, oso egun berezia izan zen Donezteben, mila lagun inguru bildu baitziren, 20 urtez Arkupeak-eko presidente izan zena omentzeko asmoz. Izañ ere, elkarteko jardueretan buru-belarri saiatu baitzen, sortzaileek lortu nahi zituzten helburuak lortzeko borrokan. Zaitasunez betetako 20 urte izan dira, nahigabe batzuk ere bai; baina, bat-z ere, bazkide askoren poza eta esker ona jaso dira. Eta Feliperen lan bikain hori beraien presentziarekin aitortu zuten.

Parrokiako abesbatzak eta Garmendia eta Eli-zagoien bertsolariek lagundu zuten mezarekin hasi zen jaia.

Ondoren, kirolegian bildu ziren, eta Nafarroako Gobernuko presidenteak aginte-makila eta txapela eman zizkion, hitz atseginak eskainiz. Baita 500.000 euro ere eman zizkion hirugarren adinekoentzako egoitzaren proiektua diruz laguntzeko. Eusebio Maritorenak eta Jose Oronozek zilarrezko karabela artistiko bat eman zioten. Haren emazte Maria Jesu si portzelanazko pitxer ederra eta lore sorta oparitu zizkioten.

Bazkalondoren, mahaikide guztiei, plater apaingarri txiki bat eman zitzaien, inskripzio honekin: "ARKUPEAK. 20 URTE. Zuri esker bakarrik baita".

Felipe Ganboa, Sunbillakoa jaiotzez, Maria Jesus Zabalorekin ezkondu zen. Bost seme-alaba izan, eta hiru bilobaren aitona da. Urte luzez aritu zen basogintzan: lehenik inguruko mendietan, eta gero Frantzian. Geroago, etxetresna elektrikoen denda bat ireki zuen, gaixotasun batek lanetik urrundu zuen arte. Geroztik erabat Arkupeak-eko eginkizunetara emana bizi da. Bere ametsa, Malerreka es-kualdean, adinekoen egoitza lortzea zen.

Agur Jaunak abestu eta agintariak joan on-doren, musika eta dantzarekin jarraitu zuen bestak.

2006. urte honetan bertan, Zubietako Ola-seneko bordan sortutako Josefa Ezkurra, Malerreka amatzik, ehun urte bete zituen abenduaren 13an. Zortzi anai-arrebako famili-a bateko bigarren alaba izan zen. Martin Jose Urrutiarekin ezkondua, eta bost seme-alaba eta lau biloba zituen. Arkupeak elkartea berrarekin egon nahi izan zuen egun horretan, eta Zuzendaritza Batzordeko bi kidek, Maria Isabel Otxandorenak eta Jose Oronozek, eta Ana Hualde delegatuak bisita egin zioten, eta plaka bat, arrosa gorri sorta eta elkartearen ohorezko txartela oparitu.

2009ko besta 85 urte betetzen eta urrezko ezteiak ospatzen zituztenei eskainia izan zen. Besta horretan, oso oroitzapen berezia jaso zuten ehuna urte bete zituzten bi aitona-amonek: Frantziska Alzuri Mitxelenak, 1909ko ekainaren 4an, Arantzako Azkilarreria base-rrian jaioak, eta Patrocinio Perez Sadornilek, 1909ko azaroaren 12an, Burgosko Palacios de Benaver herrian jaioak. Azken hori, gaur egun, Oronozen bizi da.

ARKUPEAK-EN ZILARREZKO EZTEIAK ETA OMENALDIAK


Adinekoei egindako omenaldia aprobetxatuz, 2011ko ekainaren 28an, Donezteben, Arkupeak-en 25 urteko historia ospatu zen. Urrun geratzen zen, 1986an, jubilatuen bizitza hobetu nahian, lau jubilatu haien buru-belarri hasi zuten ametsa.

Aldizkariaren 24.alean 25 urteko historiareng laburpena egiten da: jardueraz eta arrakastaz betea, eta baita desengainoren bat edo beste ere.

Elkartea sortu zenean, tokikoa edo Doneztebekoa bakarrik izan zen. Berehala, eskualdeko bihurtu zen, eta gero probintziako; hedatze horretan, Irungo eta Iparraldeko bazkideak onartu egin ziren, haietako asko hemen jaio zirelako, nafartarrak sentitzen baitziren.

Arkupeak-en 25 urteko historia

Historia de los primeros 25 años



Alli presidente, San Miguel alkatea, Cirarda artapezpikua eta Ricardo de León kontseilaria

Arkupeak ohartu zen, garai hartan, ez zegoela gizarte-zerbitzu askorik; jendeak informazio gutxi zuela norbere eskubideei, pentsioei, laguntzei, egoitzei eta abarri buruz. Horregatik, Gizarte Segurantzaren bulego bat irekitzeko borrokatu zen; aldi berean, Frantzian edo atzerriko beste herrialderen batean lan egin zutenei pentsioak erregularizatzeko aholkuak eman zitzaizkien.

Arkupeak-en beste helburu bat inguruko herrien arteko batasuna bilatzea izan zen. Horregatik, jarduera asko, bidaia kulturalak, turistikoak, historikoak eta tradizionalak antolatu zituen. Urtero mus txapelketak antolatzen ziren, lehenik herri bakoitzeko artean, eta gero finala denen artean. Beste jarduera aipagarri bat gimnasia eta yoga dira, ehunka bazkideren aurrean urtero erakustaldia eginez.

Egun bateko eta gehiagoko bidaiai egiten dira; batzuk interes erlijiosokoak eta beste asko dibertsio eta prestakuntza kulturalekoak. Gehienetara jende asko joaten da.

Egun batzuetako bidaiei esker, bazkide askok ezagutu zituzten hainbat herrialdeko tokiak, bestela ezagutuko ez zituztenak. Eta are zailago izango zuten Europako, Amerikako, eta Afrikako herrialdeak ezagutzea.

Zalantzarik gabe, nabarmendu beharrekoak dira Argentinara egindako bositak (hango euskal eta nafar etxeetan harrera egin zitzaien) eta 60 bat euskal emigrante, gure etxeetara, dohainik ekartzeko antolakuntza.

Tutoretzapeko etxebizitzak eta Gizarte Segurantzaren bulegoa irekitzen lagundu zen.

Urtero, salbuespenik gabe, errepikatu den jarduera omenandi-bestea izan da, lehen aipatutakoaren arabera.

Dezepzioren bat edo beste ere izan da. Adibi-



Mindegia, J. Retegi, Felipe Ganboa, Pierola, J.I.Retegi

dez, Xabierko San Frantziskoren amaren Azpilikuetako etxea ez eskuratzea han oroimen museo bat jartzeko, eta Doneztebeko igerileku estalia ez lortzea; baina, batez ere, hirugarren adinekoentzako egoitza eta eguneko zentroa ere izatea nahi izan zena ez egitea Krisi ekonomiko handiaren ondorioz, eraikina bere zimenduetan eta oinarrizko egituraren geratu baita.

Arkupeak-ek izan duen funtzionamendu ego-kia, Zuzendaritza Batzordearen lanaz eta zuzendaritzaz gain, parte handi batean herri bakoitzeko ordezkarien lana ere izan da, jarduera guztien berri emanet, eta bazkideekin harreman zuzena izan dutelako.

Hogeita bost urteko historia gogoratzen, ehunka bazkide bildu ziren Donezteben 2011ko ekainaren 28an, San Pedro jaien bezperan.

Ekitaldiak hasi ziren hiru apaiz ezagunek parrokiaren emandako mezarekin: Mikel Biain, Basilio Sarobe eta Jesus Sotil-ek.

Parrokiako abesbatzak abestu zuen, Javier Elizaldek jotako organoa lagun zuela. Bittor Elizagoien bertsolariak 25 urteko historia eta omendutako guztien merituak gogoratu zituen.

Meza bukatutakoan, 85 urte etaurrezko ezkontza-ezteiak ospatzenei zegozkien oroitzapenak eman zitzaizkien.

Hamabietan, guztiak eskertu zuten detaile berri bat: luntxa eskualdeko ikastetxearen inguruaren. Ondoren, frontoian herri kirolak aizkolarien eta Iñaki eta Iñaxio Perurenaren emanaldiarekin.

Aukera aprobetxatu zen gure kirolari handiei, haien emazteekin batera, omenaldi xume eta hunkigarria egiteko: Elias Pierola, Juan Ignacio eta Julián Retegi eta Mikel Mindegia-ri.

Arratsaldeko hiruretan, kirolegian, alkatearen eta Arkupeak-eko presidentearen agurra-rekin, bazkaria egin zen. Elkarteko presidentek kargu uztearen berri eman zuen.

Bukaeran, ohi bezala, musika Jalisko Band taldearekin eta dantzaldia.

Arratsaldeko zortzietan, Udalak detaile bat izan zuen: Arkupeak elkarteari, eta haren ize-nean Felipe Ganboari, Doneztebeko herriko besten hasierako txupinazoa botatzea eskaini zion.

EGUN BEREZIAK

1995ean, Pilotaren Eguna, Anaitasun eta Omenaldien Egunean. Ezkila joaldiaren lehiaketa.

1996an bisitatu ziren Belateko tunelak, garrantzi handikoak eskualde honetarako, beranduxeago inauguratzekoak baitziren.

2011n, gure kirolari handiei omenaldia, Arkupeak zilarrezko ezteiak ospatu zituen egunean.



1993an, Herri kirolen jaialdia, Anaitasun eta Omenaldien Egunean.

GARRANTZIZKO BIDAIA BATZUEN LABURPENA

Lehenago aipatu dugu jarduera arrakastatsuuenetako bat bidaiaik egitea zela. Erran orokorra da, bestela etxetik edo herritik atera ez ziren bazkide askok, Arkupeak elkarteari esker, inoiz pentstu ere egin ez zituzten lekuak bisitatzeako aukera izan zutela: Europa, Amerika eta Afrika; eta beste herri batzuetako lagunekin harremanetan jartzeko aukera izan zuten.

Alde batera utziko ditugu Euskal Herriko eta Estatuko leku askotara antolatutako bidaiaiak.

Europara egindako bidaien artean, hauek nabarmendu beharko lirateke: Aita Santuari bisita, Italiara, eta beste batzuk Portugalera, Parisera eta Herbehereetara.

BRASIL ETA ARGENTINARA BIDAIA

Arkupeak-eko Zuzendaritza Batzordeak bazekien Argentinan bazirela, gerra zibilaren ondoren, hara emigratu zuten pertsona asko; eta, hainbat bazkideren gogoei jarraituz, Ameriketarako lehen bidaia antolatu zuen, Brasilera eta Argentinara, hain zuzen ere.

1998ko azaroaren 20an, 32 bazkide atera ziren Madrildik, eta Rio de Janeiroko Santos Dumont aireportuan lur hartu.

Beharrezko atsedena hartu ondoren, hango inguru batzuk bisitatu zituzten: Copacabana, Ipanema, Leolon eta Corcovodoko Kristoa. Bigarren egunean, Uharte Tropikalak bisitatu zituzten; eta hirugarren egunean, Sao Paulon geldialdia egin ondoren Iguazu aldera joan ziren.

